



Arrasate ilun
bezain biziaren
soka amaigabea

Daniel Zulaika
medikuari
elkarriketa

**12.000 kutsaturen
langa gaindituta,
intzidentzia-tasa
2.500etik gorakoa da
Debagoienean** / 2



**Osasun etxeetan batu
dira sindikatuak,
"Osakidetzako lehen
arretako murrizketen
kontra"** / 2

**Naturalea izeneko
bioalkohola ekoizteko
proiektua bultzatuko
du Hiruatz elkarteak
Ekuadorren** / 15

**Egoitza birgaituta eta
egoera berrira
egokituta beteko ditu
30 urteak Oñatiko
Natur Eskolak** / 25

GABONAK

Honako egun hauetan jasoko
dituzue hurrengo aldizkariak:
'2021 urtekaria': 30ean.
'Puntua': urtarrilaren 5ean.
GOIENA: urtarrilaren 14an.

Ondo
izan!

SINADURAK

IRAKI
ETXEBESTE / 6

ANE
ZUAZUBISKAR / 9



MARKEL
ARRIOLABENGOA / 12



ESTEBAN
IRUSTA / 25



AINZANE
OIARBIDE / 40



BARRURA SARTZEKO, DERRIGORREZ TXERTATUTA

Kultura, kirol eta osasun eremu itxietan eta ostalaritzan sartzeko eskatzen hasi
dira 'COVID-19 ziurtagiria'; erabakiaren kontrako ahotsak azaleratu dira / 2

COVID-19 ziurtagiria eskatzen joan den zapatuan Bergarako Udal Pilotalekura sartzeko, Gabonetako kontzertura. IMANOL SORIANO

Hemen
garbiketak

Inoiz baino garrantzitsuagoa
**ZURE KONFIANTZAKO
GARBIKETA ENPRESA**

ESKORIATZA
T. 943 71 48 45
www.hemen-garbiketak.com
hemen@hemen-garbiketak.com

VOLKSWAGEN ID4 ELEKTRIKOA


TEKNOLOGIA ETA ETORKIZUNA

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 16 70

Intzidentzia-tasaren eboluzioa

DATUEN ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA ETA NAFARROAKO GOBERNUA



Positibo kasuak eta intzidentzia

	Positiboak abendua 13-19	Positiboak abendua 6-12	Positibo metatuak	Positiboak biztanleekiko	Intzidentzia tasa 14 eguneko, 100.000 biztanleko
Oñati	264	91	2.221	%19,37	3.095
Arrasate	247	288	4.594	%20,80	2.422
Bergara	165	184	2.505	%16,66	2.321
Aretxabaleta	72	105	1.264	%17,85	2.500
Eskoriatza	47	69	740	%18,04	2.827
Elgeta	25	6	130	%11,49	2.740
Aramaio	17	20	297	%20,07	2.500
Antzuola	11	10	417	%19,14	963
Gatzaga	1	5	23	%9,20	2.564
DEBAGOIENA	849	778	12.191	%18,81	2.510

OHARRA: EGUAZTENERA ARTEKO DATUAK

ITURRIA: OSASUN SAILA

Uxue Igarza Loiola DEBAGOIENA

Gabonen atarian, mugak gainditzen jarraitzen du pandemiak. Debagoieneko Ospitaleak eguaztenean emandako datuaren arabera, martitzenean 205 positibo atzeman ziren bailaran; egun bakarrean erregistratutako inoizko zenbateko handiena da. Eta azken asteko datua ere –hilaren 13tik 19ra bitartekoa– 2020ko martxoaz geroztik erregistratu den okerreana da: 849 kutsatu atzeman dira –aurreko astean baino 71 gehiago–. Hala, intzidentzia-tasa ere inoiz baino handiagoa da eskualdean: 2.510ekoa da.

Herriei erreparatuta, Oñatin erregistratu dira kasu gehien oraingoan, eta esanguratsua da datua; izan ere, astebeteetan 264 kasu atzeman dira; ia aurreko bi hilabeteetan beste. Arrasate eta Bergara izan ditu atzetik.

EAEen ere goranzko joera ez da eten. Iazko egoerarekin alderaketa eginda, 2020ko abenduaren 16tik 22ra bitartean, 2.965 positibo hauteman ziren; eta 2021eko azken astean, ostera, 14.928. Halere, 12.000 positibo gehiago atzeman arren, 55 heriotza gutxiago izan dira aurten eta positiboaren proportzioan gutxiago dira ospitaleratutakoak ere. Iaz, 391 lagun zauden ingresatuta –86, ZIU–; eta aurten, 290 –101, ZIU–.

Debagoieneko ospitalean, berriaz, lau lagun daude ingresatuta, koronabirusa dela-eta.

200 positibotik gora erregistratu dira bailaran egun bakar batean

Goranzko joerarekin jarraitzen du COVID-19ak eskualdean; positiboek eta intzidentzia-tasak gora egiten dute etengabe. Pandemia hasi zenetik, 12.191 debagoiendarrek harrapatu dute gaitza; hots, bailarako herritarren %18,81ek

Eta ospitaleekin jarraituz, SATSE, ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuek mobilizazioak egin zituzten atzo, "Osakidetzan lehen arreta zerbitzuan egiten ari diren murrizketen kontra". Arrasateko anbulatorioaren parean ere egin zuten protesta, "langileen gainkarga" salatuz.

ADINEKOEN EGOITZAK ZAZPI POSITIBO BAILARAKO EGOITZETAN

Gipuzkoako adinekoen egoitzei dagokienez, zazpi kasu atzeman dira azken egunetan; horietako hiru, Bergarako Mizpirualden. Bestetik, Arrasateko Iturbide egoitzako kutsatuak osatuaz doaz, eta, azken datuen arabera, lau dira positibo aktiboak.

TXERTAKETA-KANPAINA 730 HAUR TXERTATU DIRA DAGOENEO DEBAGOIENEAN

Zapatuan hasi zuten Debagoienean haurren txertaketa. 9 eta 11 urte artekoak txertatzeko 730 hitzordu egin dira, eta dagoeneko 8 urtekoentzat txanda hartzeko aukera ere zabalik dago. Datozen egunetan Arrasaten txertatuko dira bailarako guztiak, 15:00etatik 19:30era. EAEko datuei dagokienez, lehenengo bost egunetan, 5 eta 11 urte bitartekoak %10,5ek hartu dute lehenengo ziztada. Eta txertaketa-kanpaina orokorrari erreparatuta, EAEko herritarren %91,2 dira immunitate handiena lortu dutenak; %92,3, lehenengo ziztada hartu dutenak; %33,8, errefortzu

dosia hartu dutenak; eta %3,2, txertoari uko egin diotenak edo kontraindikazioengatik jarri izan ezin dutenak.

ZIURTAGIRI DIGITALA 'COVID ZIURTAGIRIA' ERAKUTSI BEHARRAK EZTABAIDA PIZTU DU

Abenduko lehenengo egunetan hasi ziren zenbait egoeratan COVID ziurtagiri digitala eskatzen, eta hamar egunera, Jaurlaritzak ziurtagiriaren erabilera hedatzea onartu zuen. Egundak, ostalaritza establezimendu guztietan, gimnasio eta kirol establezimenduetan, zentro soziosanitarioetan eta adinekoen egoitzetan eta jende asko biltzen dituzten kultur, aisialdi eta kirol jardueretan eskatu behar da.


Adibidez, Oñatiko Aloña Mendi eskubaloitzaile Ander Varelak kontatu du taldeetako batean bi jokalaritxertatu gabe daudela, eta, Jaurlaritzaren aginduei jarraiki, ezingo dutela taldean jarraitu: "Oso gustura dabilta, baina dekretua aldatzen ez bada edota txertatzen ez badira, ezingo dute jarraitu". Egoera hori izanda, bestelako proposamenak egin dituztela kontatu du Varelak: "Guretzat Aloña Mendiko jokalariek denak dira: txertatuta daudenak eta txertatuta ez daudenak. Hala, hainbat aukera jarri ditugu mahai gainean; adibidez, partiduen aurretik antígeno probak egitea. Osasun Sailak, baina, ezezkoa eman du".

Ostalariei dagokienez, Bergarako hainbat establezimenduren jabe den Fernando Etxabarrik azaldu du atean jarrita dutela ziurtagiria erakustea nahitaezkoa dela dioen kartela eta "zorrotz" ari direla neurria betetzen. Hala ere, gaineratu du bere ustez ostalariei "ez dagokiela" horrelako neurriak betearaztea: "Ostalariek ez gendake lan hau hartu behar. Beste behin, pandemiaren aurka egiteko neurriek gure sektorea kaltetu dutela sentitzen dugu".

Eta kulturaren eremuan dagoeneko ia 4.000 sinadura batu dituen manifestua kaleratu dute, *Kulturgileak gara* izenpean. Ziurtagiriaren derrigortasuna salatu dute kulturaren bueltako

Baieztatutako positibo metatuak Debagoiengan

ITURRIA: EUSKO JAURLARITZAKO OSASUN SAILA



langile, artista eta herritarrek: "Bereziki larria iruditzen zaigu kultur ekimenetan herritarrek beste herritarren gainean kontrola ezarri behar izatea. Kultur balioen alde lan egiten dugu, komunitatea sendotzearen alde (...) Arau berriak balio horiekin talka egiten duela iruditzen zaigu, haustura eragiten duela eta jende bati kultura jasotzeko eskubidea murrizten diola".

Ziurtagiriak askotariko iritziak sortu ditu, eta eragile eta norbanakoek mobilizazioak egin eta iragarri dituzte egunotan. Debagoieneko herrietan ere ari dira bilerak egiten; esaterako, Bergaran eta Aretxabaletan. Bergarako Usondo parkean herritar talde batek batzarra egin zuen domekan eta deialdia egin dute gaur 19:00etan bigarrena egiteko. Bertaratutako Pili Gartzia herritarrek

azaldu du 60 lagunetik gora batu zirela domekan: "Uste dugu ziurtagiriak pertsonen askatasunaren kontra egiten duela". Aretxabaletan atzo egin zuten bilkura, eta inguruko herrietako pertsonak hurbildu zirela azaldu dute. "Ziurtagiriaren inguruko hausnarketa zabaldu nahi dugu eta diskriminazio egoera honen aurkako mobilizazioak egin", zehaztu dute. Bestetik, jakinarazi nahi izan dute txertatutako eta txertatu gabeko pertsonak daudela ekin tzaren atzean, baina "ziurtagiriaren derrigortasunaren kontra egoteak" batzen dituela.

Oñatiko Udalak, berriz, gutuna bidali dio Osasun Sailari. Bertan salatu du Jaurlaritzak "udalen gain" jarri duela neurriak betearaztea eta pandemiari "ezin zaiola soilik neurri murriztaileekin aurre egin". Horri gehitu

dio "gainezka" dagoela Osakidetza lehen arreta, eta langileek nahiz herritarrek "egunero pairatzen dutela inbertsio falta".

GABONETARAKO GOMENDIOAK TALDE "TXIKI ETA EGONKORRETAN" BATZEKO AHOLKUA

Gabon jaiei begira jarrita, Labik hainbat gomendio jaso ditu. Gozone Sagardui Osasun sailburuak eman zuen horien berri astelehenean. Ospakizunetan gehieze ere hamar pertsonako eta bi familia unitateko "talde egonkor eta txikia" sortzea gomendatu dute, eta baita plater eta edalontziak ez partekatzea ere. Halaber, adierazi dute "besarkadak eta antzekoak" saihestea ere komeni dela.

Sarek mobilizazioak deitu ditu Gabonen testuinguruan

Urtarrileko ohiko hitzorduaren aurretik, lau mobilizazio egingo dira Hego Euskal Herriko hiriburuetan

Uxue Igarza Loiola DEBAGOIENA

Beste urte batez, Sare Herritarrak manifestazioak deitu ditu Gabonen testuinguruan, "euskal presoak Euskal Herrira hurbiltzea" eta "gradu-progresioa aplikatzea" eskatzeko.

"Aurrerapausoak" ikusi dituztela azaldu du Sarek, baina "urratsak egiten jarraitzeko beharra" azpimarratu du: "Oraindik zutik dirau urruntze-politikak: 196tik 77 preso daude Euskal Herrian. Gradu-progresioari dagokionez, nahiz eta praktikan preso guztiak bigarren

graduan egon, bederatzi bakarrik aurreratu dituzte hirugarrenera".

Urtarrilero Bilbon egiten den mobilizazioa 8an egiteko asmoa du Sarek, baina, data horren aurretik, beste hainbat deialdi ere egin dituzte Hego Euskal Herriko hiriburuetan. Donostian, abenduaren 26an, bizikleta mar-txa egingo dute Martuteneko espetxetik 12:00etan, eta ondoren, 13:00etan, manifestazioa abiatuko da epaitegitik.

Horrez gain, herrietan ere ekimenak antolatu dituzte, preso hurbilketa eskatzeko.

Helburua gaindituz, 251 jostailu banatu ditu Gurutze Gorriak

Abenduan jostailu bilketa egin du Gurutze Gorriak oparirik erosteko aukerarik ez duten familiei laguntzeko

U.I.L. DEBAGOIENA

Aurten 245 jostailu biltzea jarri zuen helburu gisa Debagoieneko Gurutze Gorriak, eta, herritarrek egindako ekarpenei esker, 251 jolas bildu dituzte. Egoera ekonomikoa dela-eta Eguberrietan seme-alabei oparirik erosteko aukerarik ez duten 133 familiari banatu zaizkie: 95 ume Arrasatekoak, 58 Bergarakoak, 45 Oñatikoak, 23 Eskoriatzakoak, 22 Aretxabaletakoak, bost Elgetakoak eta hiru Antzuolakoak dira.

Herritarrek dohaintza bidez, jostailu-txekeak erosiz eta bil-

keta puntuetan jostailu berriak entregatuz egin dituzte ekarpenak. Gurutze Gorriak esker ona eman nahi izan die *Jostailu hezitzailea* kanpaina parte hartu duten herritar, enpresa eta erakundeei; besteak beste, Debagoieneko udalerrietako gizarte-zerbitzuei, Arrasateko Eroskiri eta eskualdeko enpresei. Horrez gain, Gurutze Gorriko boluntarioei aipamen berezia egin nahi izan die: "Haien lanik gabe ezinezkoa izango litzateke 251 haurrek jostailu berria izatea aurtengo Gabonetan".

A-636 Beasain-Bergara

autobian ere bai,
askoz gehiago!

ERRAZTASUN GEHIAGO

AURREZPEN HANDIAGO

INBERTSIO HANDIAGO

Informazio gehiago: info@bidegi.eus / 943 105 106 / GI-20 - KP/PK 14,800 - Aritzeta-Usurbil

AURREZ AURREKO INFORMAZIOA

BIDEGIk A-636 autobideko bidesari berriari buruz informazioa emateko eta ABIATU gailua tramitatzeko gaitu dituen informazio-puntuak:

- BERGARA**
Abenduak 30, Urtarrilak 19.
Ondartzan-AP-1 (Goizez)
Udaletxean (Arratsaldean)
- ANTZUOLA**
Urtarrilak 10-26. Udaletxean.

Ordutegia: 9.30-13.30 / 16.00-20.00

Udanak eta Arlabanek itxita jarraituko dute

Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak martitzenean onartu zituen, urgentziaz, azken euriteek eragindako kalteak konpontzeko lanak. Lanotarako aurreikusitako denbora hiru hilabete eta erdi eta bost hilabete da, hurrenez hurren

Julen Iriondo M. de Zuazo ARRASATE 815.000 euroko aurrekontua izango dute, denera, Udanen eta Arlabanen, euriak eraginda errepidean sortutako pitzaduren ostean konponketak egin eta bidea berriz ere erabilgarri jartzeko lanek. 315.000 euro izango dira Udanarako, eta milioi erdi Arlabanerako. Udanako lanak egiteko hiru hilabete eta erdi eta Arlabanekoetarako bost beharko dituztela aurreikusi du Aldundiak. Hala jakinarazi dute martitzeneko Diputatuen Kontseiluaren ostean; urgentziazko izaeraz onartu dituzte lanak, eta horrek dakar, ohiko urratsik barik –lizitazioa...–, kontratu zuzenen bidez enkargatzea. Eta, horrelaxe, ahalik eta bizkorren hasiko dira; urtarrilean, Diputazioako iturriek adierazi dutenez.

Bolibarko bidea

Eskoriatzan, Bolibar auzorako bide nagusia konpontzeko –ordezko bideetatik dabilta auzo-



Udanako zorua, azken euriteek kaltetua. OIHANA ELORTZA

tarrak– 100.000 euro onartu dituzte, eta lanek hiru hilabete irautea aurreikusi.

Kanpanzarren, bikoizketa

Kanpanzarrenako ere onartu ditu Aldundiak beste lan batzuk,

590.000 eurotan, lau hilabeteko epearekin. Bestetik, hasi dira dagoeneko, Bizkaiko aldean, beste zati bateko erreietako bat bikoizteko lanak. 900 metro izango dira, lehen bikoiztutakotik gertu, mendateko zuzen nagusian.

EKINTZAILTZA GARAIA



Garaiaiko eraikinetako bat. PTG

Enpresa gehiago, 2021ean, Garaia Parke Tecnologikoan

340 ekitaldi antolatu dituzte, denera, urte honetan zehar; aurreko urtean baino %42 kopuru handiagoa da

J.I. ARRASATE

"Aurrekoa bezalakoa ez, baina aurtengoa ere urte arraroa" izan dela diote Garaia Parke Teknologikotik, amaitzera doan urtearen errepasoa egiten hasita: "Gogorra, 2021a ere; nahiz eta asko ikasita ekarri dugun aurrekotik, neke handia pilatzen ari zaigu dagoeneko".

"Zorionez, Debagoieneko Garaia Parke Teknologikoan esanenezake osasunez bizi dugula garai hau, hemen kokatzen diren enpresen esfortzu eta indarrari esker. Parkean kokatutako enpresa kopurua handitu egin da, eta urtea 65 enpresarekin itxiko dugu", diote. Ingeniaritza (%41), ikerketa eta garapen (%25), formakuntza (%22) eta energia (%7) arloetan aritzen diren jarduerak dira. "Langile kopuruak ere handitzen jarraitzen du: 1.500 langiletik gora gara gure ekosistema, eta %47k ikerketa eta garapenean dihardute".

2021. urtean, Garaia Parke Teknologikoan 340 ekitaldi antolatu dituzte, aurrekoan baino %42 gehiago, eta urte osoan zehar 13.000 pertsonatik gorako mugimendua sortu da: "Enpresa handi, ertain eta txiki, ikastetxe zein erakundeetako, langile, zientzialari, profesional, ikasle... Era guztietako pertsonen elkarlanean jarraitu dute denbora honetan guztian, ezagutza partekatzen, proiektu berriak antolatzen, etorkizuna nolakoa izango den gaur eta hemen erabakitzen".

Garaiatik diote "zailtasunei aurre egiteko" berrikuntza eta teknologien erabilera aplikatzen dutela enpresek: "Pertsona presatuek, kalitatezko lanpostuek eta ekintzailtza iraunkorrak gure etorkizuneko gizarte eta ekonomia oinarriak eraikitzen dituzte; bertako balio kooperatiboekin batera, gure inguruak duen dinamismoaren eta osasunaren seinale dira.

Enpresa eta pertsona horiek guztiek egiten dutenaren lekuko gara PTGaraian, gertatzen diren horien guztien eszenatokia prestatzen dugu, urtero berrituz, zerbitzu berriak eskainiz, hobetuz eta bidelagun izanda; Debagoienarentzat gizarte eta ekonomia garapen iraunkorra bultzatu nahi dugu, ekintzailetzan, berrikuntzan eta kolaborazioaren erreferente izanez.


Urtero saiatzen gara helburua betetzen, eta hau ez litzateke posible izango, hemen, gure inguruan, ditugun pertsona, erakunde eta enpresen laguntzarik gabe. Gure komunitatea gure altxorrik baliotsuena zarete. Eskerrrik asko guztioi!

PTGaraiatik, Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu, eta 2022 urte berri ona!".

1.500 LANGILETIK GORA DIRA GARAIAKO "EKOSISTEMAN", ETA I+G-AN DIHARDUTE HORIETAKO %47K

'Abiatu' eskuratzeko kanpaina luzatu egin dute

Hamar bat egunean izan da Debagoienean Beasain-Bergara autobideko bidesariari buruzko aurreko aurreko zerbitzua, Bergaran eta Antzuolan. Aurreko astean amaitu zen kanpaina, baina, izandako "erantzun ona" eta gaiarekin lotuta zenbat dei jasotzen ari diren ikusita, luzatzea erabaki dute. Bidegiko langileak Antzuolako udaletxean egongo dira urtarrilaren 10ean eta 26an, eta Bergarako Ondartzan –goizez– eta udaletxean –arratsaldez– abenduaren 30ean eta urtarrilaren 19an, 09:30etik 13:30era eta 16:00etatik 20:00etara. Herritarrek bertan eskuratu ahaliko dute *Abiatu* gailua edo euren autoaren



Abiatu txartela eta informazioa. MAIDER ARREGI

matrikula banku-txartel bati lotu; aurreko aukerak deskontuetarako modua dakar; bigarrenak, ez. Urtarriletik aurrera ordaindu beharko da autobidea erabiltzeagatik.

Aldundiaren zerbitzuarekin, orain arte, 41 lagunek eskatu dute *Abiatu* Antzuolan, eta 36k Bergaran. Beste hamalauk, erdi eta erdi, banku-txartelarekin lotu dute autoaren matrikula.

D2030: ELKARRIZKETA



Oñatiko alkatea udaletxeko balkoian, atzean Foruen plaza ikusten dela. IKER OÑATE

"Iraunkortasuna eta arlo soziala azken urteotan konbikzio bereziz heldu ditugun ildoak dira"

IZARO ELORZA OÑATIKO ALKATEA

Oñatiko alkateak argi du erronkei aurre hartzeko gainerako kolektibo eta herriein sinergiak bilatzeak duen garrantzia. Horregatik sinisten du D2030en egitekoan

Miren Arregi ARRASATE

Oñatiko Udalak bere egin du herri iraunkor eta inklusibo bat eraikitzeko erronka. Helburu horiek partekatzen dituen eskualde mailako D2030 sareareko kide ere bada, erronka horiek herri eskala gainditzen dutela jakitun.

Zergatik da Oñatiko Udala ekimeneko kide?

Geure helburuekin lerrokaturik dagoen ekinbidea da Debagoiena 2030. Finean, esangura handiko erronkei heldu beharrean gaude. Aurrera begira, epe ertain zein luzean, aldaketa handiak izango dira gizartean eta, oro har, munduan. Prest egon

beharra dugu datorrenenerako, ahal den heinean, erronka horiei aurre hartuz.

Horretarako, berebiziko garrantzia du gainerako kolektiboekin eta herriein sinergiak bilatzeak. Debagoiena 2030 iraunkortasun sarea lagungarri da horretarako. **Oñatiko Udalak herri inklusibo eta iraunkor baten aldeko apustua egin du. Nola adierazten da hori?**

Hala da. Azken urteotan, konbikzio bereziz ditugu helduak ildo horiek. Ez da egun batetik besterako aldaketa, urratsez urratsezkoa baizik. Eta, zelan ez, teoria praktika bilakatze,

funtsezkoa da eremu guztietatik eragitea – ingurumena, alor soziala...-. Bada, egunerokoan presente dugu hori. Bagabiltza, eta nabari da: turismo plan jasangarria eta inklusiboa, Merkataritza Plana, II. Berdintasunerako Plana, Onaro, energia berriztagarrien sorkuntzan, atez atekoa, Natur Eskolaren birgaitzea, Araozko ostatua, tokiko nekazari eta abeltzainendako diru-laguntzak, bidegorri zein garraio publikoetako inbertsioak...

Energia ereduaren denon ahotan dabilen unean, Oñatik duen ur-jauzien proiektua herriaren

identitate bilakatu da. Zein da Oñatiko ur-jauzien proiektuaren balioa testuinguru honetan?

Oñatik badu oinarri sendo bat. Ez soilik sorkuntzan. Banaketan eta komertzializazioan ere bai. Ur-jauzien proiektuak balio izugarria du, bai. Baina aitortu beharra dugu jakin badakigula gaur egun oñatiarren urteko energia beharrak sortzeko gai den arren, etorkizun batean bestelako energia sistema batzuk ere barnebildu beharko dituela. Bide horretan, gertutik jarraitzen ditugu egun sortzen ari diren proiektu berriak.

Oñatiko alkatea zara, baina eskualde eskalan lan egiteari garrantzitsu deritzozu? Zergatik?

Bai. Finean, Udala gai da herritarrek dituzten zenbait kezka eta beharrei erantzun egokia emateko, baina, beste zenbait kasutan, horretarako beharrezko da era kolektiboan jardutea. Herrien artean badira partekatzen diren arazoak, erronkak... Horiek kolektiboki helduta, eraginkorragoa izango da erantzuna.

Uste duzu herritarrek hasi direla etorkizuneko erronkei aurre egin behar hori bere egiten?

Esan daiteke teoriarekin gehiengo zabal batek duela bat egin. Dena den, erronka horiek aldatetak dakartzate norberaren egunerokotasunera. Hor, aldaketa ez da egun batetik bestera gertatzen. Landu beharreko gaia da. Eta lantzen badugu, ostean, epe luzeagoan, nabaritu egingo dira horren fruituak. Ekimen, ekintza, aldaketa... konkretuek eroango gaituzte errealitateaz jabetzera, eta hori eginda etorriko da gizartearen zati handi baten inplikazioa. Faseka egin beharreko aldaketa da. **Zer eskain diezaioke Oñatiko Udalak D2030 ekimenari, eta alderantziz?**

Esan moduan, sinergiak topatzeko eta horiez baliatzeko aukera eskaintzen digu D2030ek. Bide horretan, Oñatiko Udalak herri mailan abiaraziriko proiektuak, hausnarketak, azterketak,

baliabideak... parteka ditzake iraunkortasun sarearekin. Eta hark, trukean, gauzak egiteko ikuspegi berriak eskain ditzake, harreman berriak sorrarazi, indarrak batzeko gune bat eraiki...

Lankidetzaz eta gobernantza kolaboratiboaz ere badihardu D2030ek. Zein garrantzi dute erronka globalei tokikotik erantzuteko betebeharrak horretan?

Kolektiboan dihardugu mundu mailako erronkei tokiko erantzuna eman guran, sinergiak bilatuz eta topatuz. Eta hor, bereziko garrantzia du gobernantzak. Ezin dugu ahaztu izaera askotariko parte hartzaileak barnebiltzen dituela D2030ek -erakundeak elkarteak, kooperatibak...-. Gauzak horrela, iraunkortasun sarearen epe luzeke ibilbiderako, funtsezkoa da gobernantza eredu egokia eraikitzea. Berria da esperientzia, eraiki barik dago gobernantza eredu. Horrek aukera berriak sortzen dizkigu. **D2030ek eta halako proiektuek zein garrantzi izango dute aurrerantzean?**

Orain artean ohiko izan ez den esperientzia gaude murgildurik. Izaera askotariko erakundeak, entitateak... gabiltza, etorkizuneko erronka globalei, tokiko ikuspegitik, erantzun egokia eman guran. Ez da zeregin makala. Datozkigun erronkak ikusita, pentsa daiteke geroz eta ohikoago izango direla halako sareak. Beraz, esan daiteke osteko urratsetarako ere esangura handikoak izango direla hasierako hauek.

"UR-JAUZIEK BALIO IZUGARRIA DUTE, BAINA GERTUTIK JARRAITZEN DITUGU PROIEKTU BERRIAK"

"DATOZKIGUN ERRONKAK IKUSITA, GEROZ ETA OHIKOAGO IZANGO DIRA D2030 BEZALAKO SAREAK"



ZABALIK

IÑAKI ETXEBESTE

'Espuelia'

Urteko azkenengo *Zabalik* dela esan zidaten. Iritzi eta gogoeta desberdinetatik edateko azken tragoa, *espuelia*. Ez naiz ni mariatxi-zalea, baina, ezinbestean, *En el último trago* rantxera etortzen zait burura *espuela* hitzarekin...

Niri ere, rantxeran bezala, denborak ez dit ezer irakatsi. Ni ere beti nabilelako akats berberen bueltan. Adibidez, behin eta berriz kateatzen naizen akats bat da, erantzunik ez duten galderetan denbora galtzea, edo mugarik gabekoan, denboran edo unibertsoan, hasiera eta amaiera ematen. Badakizue? Unibertsoa hiltzen dabil, hala kontatu zuen astrofisikari batek, orain gutxi, Espainiako Estatuko agerkari baten. Hiltzen, behintzat, ezagutzen dugun bezala hiltzen, REM taldeak ere abesten zuen bezala, *it's the end of the world as we know it*.

Ño! Unibertsoa hiltzen. Ikaragarria, zorabio itzela... Astrofisikariak zuzendu, eta hilketa antropozentrikoa izango dela aurreratu zuen. Hau da,

BADAKIZUE? UNIBERTSOA HILTZEN DABIL; HALA KONTATU ZUEN ASTROFISIKARI BATEK ORAIN GUTXI

Beharbada, ez hain atsegina, Glasgowko klima biltzarrean gerta bezala, inuzentekerietan jarraitzen baldin badugu. Hemen ere, akats berberetan eroriz.

Horrelakoetan, Monty Pythonen amaigabeko jakinduria putzura jotzen dut laguntza bila. Ehunka dira talde horren bitxiak; aurreko lerroetako zorabioak jota nagonean, *Bizitzaren esanahia* filmeko *Galaxy song* entzuten bukatzen dut maiz.

Amaiera bikaina du kantak; honela dio, euskarara ekarrita: *Beraz, txiki eta noraezean aurkitzen zarenean, gogoan izan zein zoragarria eta ezohikoa den zure bizitza, eta otoitz egin unibertsoko izkinen baten benetan azkarra den bizitza dagoela, zeren eta Lur planeta inuzentez beteta dago.*

Eta, hala, konturatu orduko, *espuelia... y en el último trago nos vamos*.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Zer jantzi

ARANTXA URRETABIZKAIA

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Behin entzun nion lehendakari bati bere gobernuko emakumeak sufritzen ikusi zituela han edo hemen zer jantzi behar zuten erabakitzeko orduan, karga handia izan zela janzkera emakume horientzat; ez, ordea, gobernu bereko gizonezkoentzat.

Ez dit inork kontatu, zuzenean lehendakari haren ahotik entzun nuen hori, tartean hiru metroko distantzia ez zegoela. Denborak hori irakatsi didalako, ez nion esan, nire

ustez, hainbeste buruhaustek ez zuela askotan bere gobernuan ondorio onik izan, behin baino gehiagotan iruditu izan zitzaizkidalako emakume haiek mozorrotuak, arropak barruan zegoen emakumea zapalduta.

Kontua da esparru publikoan eta, batez ere, politikaren alorrean, presentzia handia duten emakumeentzat oraindik ere arazo dela zer, nola, noiz jantzi, hasi erreginatik eta zinegotzi batekin buka.

Badirudi batzuek ikuslea txunditu nahi dutela, soineko bat edo traje bat errepikatzea bekatu balitz bezala. Beste batzuek arropa

saltzen dienei kasu gehiegi egiten diote.

Bakarren batek hor aurkitzen du printzesaz janzteko aukera.

Ia guztiak, hori bai, kexatu egiten dira soinean daramatenari eskaintzen diogun arretaz. Eta, halere, begi bistan dute korapiloa askatuko lukeen adibidea: Angela Merkel. Urtetan, gizonentzat uniforme dena bere egin du, koloreak gorabehera eta hasierako momentuetan bai, baina aspaldian ez du inork haren janzkera komentatzen. Badakigu zer jantziko duen eta soinean daraman arropak ez du gure arreta desbideratuko.

goiena

KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailetako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga,
Ziortza Martín,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua:

SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

BERBAGAI

"Erabakitzeke eskubidean, esatetik egitera pasa behar da"

JOSU ETXABURU OSA GURE ESKU PLATAFORMAREN BOZERAMAILEETAKO BAT

Larraitx Zeberio Lekuona ARRASATE
Gure Esku plataformak bultzatuta *Arantzazuko adierazpena* aurkeztu zuten zapatuan Gandiaga Topagunean. Euskal gizartean erreferente diren ehun lagunek sinatu dute. Josu Etxaburuk (Ondarroa, 1961) ezinbestekotzat jotzen du elkarlanean ekinean jarraitzea.
Adierazpenak ze ekarpen berri egiten ditu?
Sinatzaileen aldetik badago berezko pisu bat. Askotariko esparruetan euskal gizartean erreferente diren hainbat eta hainbat lagun elkartu dira, berriz ere, erabakitzeke eskubidearen alde. Horrek berez du mugarri baten izana. Sinistuta gaude honek bere eragina izango duela.
Erreferentziazko ehun lagunek sinatutako adierazpena da.
Egia da horrelakoetan beti izaten dela ibilbide luzeagoko jendea: Ibarretxe lehendakaria, Garbiñe Biurrun, Kiko Caballero...



Josu Etxaburu Osa, Arrasaten. L.Z.L.

Baina kontuan hartu behar da, baita ere, sinatzaileen artean jende gaztea badela. Hau da, datozen urteetako euskal gizartean paper garrantzitsua jokatzera deituak daudenak.

Nor interpelatzeko du adierazpen honek?
Hiru esparrutara bideratutako adierazpena da: dei egiten diegu, batetik, gure ordezkari politikoei, beraien eskuetan baitago erabakitzeke

eskubidea legeztatzeke tresnak erabakitzea eta bideratzea; dei egiten diegu Euskal Herriko eragile guztiei, asko gara-eta burujabetza klabeetan lanean dihardugunok; azkenik, herritarrei ere egiten diegu dei. Herritarrok, honetan ere, hauspoa izan behar dugu. Garaia da herriari hitza emateko edo herritarrok hitza har dezagun.
Pandemiak dena estali duen honetan, agenda politikoan espazioa galdu du erabakitzeke eskubideak?
Egia da euskal herritarren osasuna bermatu behar dela orain, baina horrek ez du esan nahi beste elementu batzuk lehenetsi behar ez direnik. Seguruenik, euskal herritarren osasuna zaintzeko ere burujabe izango bagina askoz ere tresna egokiagoak eta gertukoagoak izango genituzke erantzuna emateko.
Erreferendumaren aldeko Hamaika gara sinadura bilketa martxan duzue. Nola doa?
Egia da gaurkoa ezin dela irakurri 2020ko martxoko itxialdiaren aurretik esandakotik, baina jendeak ulertu du eta hor daude 25.000 sinaduratik gora esanez burujabetza klabeetan ari garen hainbat eragilek elkarrekin egin behar dugula

bidea. Sinadura horiek egingo dute beraien bidea, eta, tokatzen denean eta eskaera eskubidea baliatuz, iritsiko dira Eusko Legebiltzarrera, bertan ordezkatzuta dauden alderdi politikoetako ordezkariak behartuz erantzun bat ematera.
Zeintzuk izango dira Gure Eskuren lan-ildo nagusiak hurrengo hilabeteetan?
Jarraituko dugu sinadura bilketarekin eta baita ere ordezkari politikoekin legeztatze bide hau jorratzen. Gero, beste mugarri eder bat dugu uztailaren 2an. 300dik gora mendi argiztatuko ditugu kataluniarrekin batera. Badakigu gutariko herri bakoitzak erabakitzeke eskubidean egindako bidean zer eman duen. Oraindik ez dakiguna da herriok elkar hartuta zer-nolako gaitasuna izan dezakegun bai Estatuaren aurrean nahiz Europaren aurrean erabaki nahi dugun herriak eta herritarrok gaudela azaltzerakoan. Ekimen kolektibo eder bat ari gara planteatzen. Batzuek mendian eta beste batzuek herrian biziko dute. Uste dugu aktibaziorako mugarri handia izango dela. Hasiak gara herriz herri eta eskualdez eskualde honen berri ematen.

ITURRI ONETIK

Ibai-arteren moda desfilea apirilaren 2an

Arrasateko Ibai-arte dendarien elkarteak apirilaren 2rako aurreikusi du moda desfilea. Azaroaren 27an egitekoa zuten Ibai-artek antolatutako Arrasateko lehen moda desfilea, Herriko Plazan. Eguraldi kaskarrarengatik, ordea, bertan behera geratu zen. Orain, datorren urteko apirilaren 2ko data aukeratu dute. Plazan egin nahi dute, oraingoan ere, baina "B plan bat prest" izango dute. Udaberriko azken joerak erakutsiko dituzte; agertokian herriko modeloak ariko dira.

ALBISTE IZAN ZEN

2009-12-20

Alaba kutun izendatu zuten Maider Unda

Maider Unda borrokalaria Aramaioko alaba kutun izendatu zuten. Izendapen hori lehen aldiz egin zioten emakumezko bati Aramaion; izan ere, ordura arte seme kutunak bakarrik izendatu zituzten. Patxi Uribarren euskaltzainak, azken Aramaioko seme kutunak, eta Asier Agirre alkateak banatu zizkioten oletarrari lore sorta eta herriko aginte makila. Kultur areto moduan inauguratu berri, Sastiña ermitan egin zuten ekitaldia.



HAU BE BADOGU!

Txertoa, ziurtagiria eta Bizitzaren protesta

Bizirik Plataformaren manifestazioaren gainean:
@JuleGoi: "Zenbatetan ikusi dituzue manifestazio berean ultrak, naziak, sozialistak, katolikoak, karlistak, ekologistak, feministak, faxistak, unionistak, independentistak, liberalak eta komunistak?"
@naroaelortza: "Zelako mina estimuan ditudan pertsona batzuk atzoko manifestazioarekin bat egin zutela ikustean".
@MKattalin: "Maitasuna argudio gisa orokorrean ikaragarria da. Adibidez, nire gogokoenen artean: Maitasun pasaportea."



Kulturola eraikin berriko beheko solairua, eta erabiltzaileen sarrera izango dena, argiteria bereziarekin. ARGAZKIAK: XABIER URZELAI



Fatxadan, *Kulturola* idatzita eta erlojua martxan.




Geletako bat, argitasuna sartzen den leiho handiarekin.



Udal Euskaltegi berriko eremuaren sarrera.



Argiztapen gorriko eremuan, komunikabideei egindako bisitan.



Maria Ubarretxena Arrasateko alkatea eta Jovino Martinez arkitektoa.

Ondare-balioei eutsita, amaitu dituzte Kulturola eraikineko lanak

Urtarrilerako bisitak antolatuko ditu Arrasateko Udalak, herritarrek barrutik ikus dezaten, eta hilabete berean, amaiera aldera hasiko dira taldeak Kulturolako espazioa erabiltzen; hemezortzi kultura talde eta Udal Euskaltegia hartuko ditu

Imanol Beloki ARRASATE

Amaitu dute Kulturola eraikineko obra, eta hura berreskuratze eta horietan izango diren taldeen beharrak eta ezaugarriak kontuan hartuta egin dituzte zazpi milioi inguruko aurrekon-

tua izan duten lanak. Gainera, dituen ezaugarri tipologikoak mantendu egin dituzte: hormigoizko estruktura, beirateen konposizioa, sabai-leihoak eta abar. Urtarrilean, herritarrek barrutik ikusteko aukera izan-

go dute, Arrasateko Udalak antolatuko dituen bisita gidatuen bitartez.

Hemezortzi elkarerentzat lekua izango da, eta baita Udal Euskaltegiko langile eta erabiltzaileentzat ere. Soinu intsono-

rizatua duten hainbat gela, sukaldea, leiho handiko gelak eta abar batzen ditu eraikinak, berezitasunez gain. Estetika gorria ardatz, linea berari jarraituz egin dituzte, esaterako, komunak, eta bada berezitasun bat: argiztapen gorriko eremua. Gainera, irisgarritasun-irizpide guztiak beteko ditu; adibidez, igogailuak. Eta jasangarria izateko azken teknologiak izango ditu.

Taldeak banaketa

Kulturola eraikineko beheko solairua da altuena, eta altuera behar duten talde batzuk izango dira bertan. Hauek dira beheko solairua erabiliko duten taldeak: Izaskun Murgia elkarte lirikoa, Loixe Zeramika, Zaldibar areto-futbola, konpartsak eta SUDC eta Santamas Komisiñuak erdi bana lokal bat. Lehen solairuan,

berriz, Udal Euskaltegia, Margo Taldea, Bertso Eskola eta Doke egongo dira. Eta bigarrenean, Lore Gazteak eta Txikitxu Arrostitz dantza taldeak, Trikitixa Eskola, Portaloit taldea, Udalaxpe txistulariak, Sambamaña, Txorbela, Ttakun Txalaparta eta Gaiteroak.

Herritarrentzat bisita gidatuak

Kultura-gune estrategiko gisa funtzionatzeko helburua izango du, eta erabiltzaileak eraikine-ra joan aurretik bisita gidatuak antolatuko dituztela urtarrilean adierazi zuen Maria Ubarretxena, Arrasateko alkatea. "Lanak amaituta, eraikina hutsik ikusteko aukera izango dute herritarrek, urtarrilean. Kulturola beteta ikusteko gogoz gaude, eta honek izango duen magia puntu hori eraikina bizitzaz betetzen denean izango da".

Lezetxikiko aztarnetara atzera begiratu bat

Kulturateko klaustroan dagoen neandertalen inguruko erakusketak astea bete du jendaurrera ireki zutenetik. 200.000 urteko antzinatasuna duten ebidentziak daude ikusgai; Jose Miguel Barandiaranek 1964an aurkitutako humeroa, esaterako

Hasier Larrea ARRASATE

Abenduaren 17ko inaugurazio egunean "pozarren" azaldu ziren *Lezetxiki*. Neandertalen lurraldea erakusketa antolatzeaz arduratu diren eragileak, 2016tik aurrera atera nahian aritu diren galeria arkeologikoak argia ikusi duelako, azkenean.

Egitasmoaren konplexutasunaz jabetzeko nahikoa da parte hartzen aritu direnen zerrenda errepasatzea: Arrasateko Udalarekin, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin koordinatu dituzte indarrak eta ezagutzak Ikerbasque zientzia fundazioak, Euskal Herriko Unibertsitateak, Gipuzkoako Ondare Bildumen Zentroa den Gordailuak eta Aranzadi eta Arrasate zientzia elkarteek. Herriko historia aztertzen duten boluntarioen lana goraipatu dute antolatzaileek, bereziki: "AZEko Javier Bengoa eta Jose Angel Barrutiabengoa dira honen guztiaren atzean egon direnak, gainontzekoak zirikatzen eta animatzen", adierazi du Marijose Telleriak, Foru Aldundiko Kultura zuzendariak.

Neandertal espeziea

Eta ez da gutxiagorako, erakusketak lehen giza zibilizazioaren aztarnak eta Pleistozenoaren garaiko bizidunen informazio zehatza aurkezten baitizkio bisitariari: garezurrak, masailazurrak, hortzak, ileak, apaingarriak... Milaka urte atzera egin arren, "gaurkotasuna hobeto ulertzeko" materiala dagoela adierazi du Marijose Iriarte arkeologoak: "Orduko gizakiek klima aldaketa larriekin egin zieten aurre milaka urtetan zehar, nomadismoa praktikatu zuten lur eremu zabaletan; gaur egun biztanleriaren zati handi batek egiten duena, alegia".

Neandertalei buruz ari da Iriarte. Dio "baieztapen faltsuak" egin izan direla beraietaz duela



Barandiaranen liburua eta Garagartzan aurkitutako garezurrak eta fosilak. H.L.

21 URTEAN 500 IKERLARI BAINO GEHIAGO PASA DIRA LEZETXIKIKO AZTARNATEGITIK

bi hamarkada arte, "muga kognitibo handiko indibiduok bezala" definituz: "Gaur egun ondo frogatuta dago fisiologikoki zein jarrerara eta gaitasun aldetik gure espeziearen oso antzekoak zirela: hizkera egituratu zuten, hileta erritualak egiten zituzten eta Cro-Magnonekin lotura duten marrazkiak margotzen zituzten; hori horrela, Cro-Magnonen, *homo sapiens*-en eta gizaki modernoak aurrekariak dira".

Bizidunen babesleku

Jakina da duela 200.000 urte bizi zirela neandertalak Lezetxikin, 1964an koba horretako lurpetik atera baitzuten Jose Miguel Barandiaran antropologoak eta bere laguntzaile Jesus Altunak Euskal Herrian orain arte aurkitutako humero formako giza hezurrik zaha-

rrena. Aurkikuntza arkeologiko baliotsu hartatik abiatuta egiaztatu zuten ez zirela bertan modu jarraikorrean bizi izan, baizik eta joan-etorri ugari egiten zituztela muturreko baldintza klimatologikoengatik: "Arrasaten duela 41.000 urte, esaterako, ez zegoen zuhaitzik, egiten zuen hotzagatik; ondorioz, epe batzuetan hartzen babestokia izan zen Lezetxiki, eta horren berri ematen dute bertan aurkitutako hiru hartz espezieren garezurrek".

Etorkizunerako bermeak

Kulturateko erakusketa arkeologiarendako positiboa izan den urtea borobiltzera datorrela nabarmendu du, berriz, arkeologian aditu Alvaro Arriabalagak: "Jose Miguel Barandiaranek burututako indusketa guztiak azaltzen diren liburuxka argitaratu du haren izena daraman fundazioak, eta Lezetxiki aztarnategiaren behin betiko babes juridikoa lortu dugu duela gutxi, datozen urteetara begirako indusketak legalki ziurtatuz".

Eboluzioari buruzko erakusketa osatua apirilaren 9ra arte egongo da ikusgai Kulturaten.

Santa Marina farmazia irabazle nagusi erakusleihen lehiaketan

Gabon giroko lehiaketa eta ekimen ugari egin dira, eta gehiago izango dira Udalaren eta Ibai-arteren eskutik

A. A. ARRASATE

600 euro eta plaka jaso zituzten Santa Marina farmaziakoek Gabonetako erakusleihen "politena" atontzeagatik. Altuna Lurrindegiak, Amaia Albes Moda Akademiak eta Belun dendek jaso zituzten, hurrenez hurren, bigarren, hirugarren eta laugarren sariak. Herritarrek emandako botoak aintzat hartuta, bi sari gehiago banatu zituzten: Nua Estetika Zentroarentzako Herritarren Saria eta Kids&Us Akademiarentzako, berriz, Haur eta Gazteen Saria. Aipamen berezia

egin zieten Elena jantzi-dendari, Toñi ile-apaindegiari eta Gare lora-dendari.

Astelehenean banatu zituen Ibai-arte Gabonetako 50 otzarak, Herriko Plazako ekitaldi musikatuan, eta abenduaren 27an banatuko dituzte Gabonetako leiho eta balkoien lehiaketakoak; botoa emateko aukera dago *Arrasate.eus*-en.



Eskaparate lirabazleak ikusteko, eskaneatu QR kodea poltsikoko telefonoarekin.


'Prakabeltz' txerria

Santamasetako protagonistaren aurkezpena egin zuten asteartean Herriko Plazan. 300 kilo inguru pisatzen du *Prakabeltz* txerriak eta Aretxabaletako Galartza auzoko Zaloña Aurrekoa baserrikoa da. Ez da baserri horrek santamasetarako ekartzen duen lehenengo txerria.

Herritarrek gustura hartu zuten protagonista, eta argazki eta guzti etxeratu ziren bertaratutako asko.



SANTAMASETAKO KOMISINUA



NIRE USTEZ

ANE ZUAZUBISKAR

Txikiegia

Youtubeko kanal bateko bideo guztiak ikusi ditut asteon, hasi eta buka; horra nire azken bizioa. *Never too small* du izena: *ezer ez da txikiegia*. Etxeez hitz egiten dute arkitektoek, hogeita hamapiku metro karratutan egindako mirariak. Minimalismoa eta arinkeria, bost minutuko bideoetan. Eta ai, min bat. Hamalau gara kuadrillan: bakarra bizi da bakarrik, bikotekidearekin beste bat, eta pisukideekin beste bat, Iruñean. Laugarren bat atzerrian. Hamalautik hamar, gurasoenean. Eta gurasoenean bizi ez direnak, lautik hiru, osasun langileak. Inbidia ematen digute. Kuadrillakoek eta Parisko 29 metro karratuko etxeek.

Hori da –salbuespenak albuespen– gure mina: gurasoenean bizi eta aurreztu –lana duzunean gorde eta lanik ez duzunean zuloa ez handitu–, edo gurasoenetik irteten eta egunean egunekoak ordaindu –eta aurrezte, besteentzat–. Eta albuespenak albuespen, hau da gure mina. Egiturazkoari amorrua baino gehiago, albuespenari inbidia diogula. Baina hori beste baterako. *Ezer ez da txikiegia*, baina lekuri gabe gelditu naiz.

"Gogorra izan arren, oso gustura aritzen naiz"

AITOR MAGALLANES TENIS JOKALARIA

Tenisarekin lehen kontaktua Leintz Eskola Kirolean izan zuen, eta asko gustatu zitzaion. Duela 10 urte, ordea, serioago hartu zuen eta gaur egun irakasle ere bada

Ainhoa Arana ARRASATE

15 urterekin futbola utzi eta tenisean jokatzeko hasi zen Aitor Magallanes. Santamasetako Tennis Txapelketa antolatzeaz gain, parte ere hartu du, eta bigarren postua eskuratu.

Antolatzaile ikuspuntutik, nola joan da txapelketa?

Balorazio oso positiboa egiten dugu; 22 pertsonak eman zuten izena eta giro ederra sortu da lehiaketa osoan. Ez genuen zabalak handirik egin; jakin bagenekien jende askok emango zuela izena, eta, osasun egoera delikatuak izanik, erabaki hori hartu genuen. Hilabete inguru iraun du eta hurrengo urtean ere antolatzeko gogoz gaude.

Jokatzen nola sentitu zara?

Egia esan, nahiko ondo ikusi dut neure burua. Azkenaldian, gutxi entrenatu naiz, baina maila onean egon naizela de-ritzot. Txapelketa osoan zehar maila handia erakutsi dute parte hartzaile guztiek, eta pozik amaitu dut. Finaleko partidua oso polita izan zen, nahikoa jende etorri zen eta partidu entretenigarria izan zela uste dut. Jokatzeko, ordea, gogorra izan zen.

COVID-19ak eragina izan al du txapelketan?

Ez dugu berebiziko arazorik izan. Egia da aire zabalean izanda ez dugula geure burua askorik arriskatu. Susto bakarra izan dugu: Jon Orbegozok, finalean nire aurkari izan zenak, positibo eman zuen finala baino bi aste lehenago. Ondorioz, txapelketa atzeratu egin behar izan genuen. Baina Jon erre-kuperatu zenean, bi egunean bi partiduko jokatu zituen, eta, horri esker, epeak betetzea lortu dugu. Osasun egoera okerrera joan denez, hasiera batean, finala publiko gabe jokatu genuela esan ziguten kiroldegiko arduradunek. Egun batzuen



Magallanes, Santamas Txapelketako finalean. XABIER URZELAI

"DEBAGOIENEAN INDARRA HARTZEN ARI DEN KIROLA DA, ETA HORI POZGARRIA DELA USTE DUT"

burura, ordea, neurriak mantenduta publikoarekin jokatzeko aukera eman ziguten, eta hori egin genuen.

Zein da gaur egun tenisaren egoera?

Pandemiak gogor eragin du, beste hainbat sektoretan bezala. Azken hilabeteetan, tenisak eta padelak indarra hartu dute, eta horiek sustatzen saiatzen ari gara. Jendearengandik jasotzen ari garen feedbacka positiboa da; adibidez, aurtun, jende askok eman du izena, eta, hain zuzen ere, itzarote-zerrenda daukagu. Gabonak pasa eta gero, helduen ikastaroak eten egingo ditugu eta martxoan emango diegu berri-za hasiera.

Entrenatzaile lanetan ere bazabiltza, ezta?

Bai; 17 urte ingururekin hasi nintzen Leintz Eskola Kirolean haurrei eskolak ematen, eta

lehenengo urtea zorakeria hutsa izan zen. Orain, helduekin aritzen naiz eta oso gustura egiten dut egiten dudana. Teniseko irakasle izateaz gain, padeleko irakasle ere banaiz: astelehene-tik ostegunera Arrasateko kiroldegian ematen ditut arratsalde guztiak, 18:30etik 21:30era bitartean.

Azpiegitura egokiak dituzue?

Orokorrean, bai, hobetzeko zerbait dagoen arren. Santamasetako Tennis Txapelketa aurrera eramateko orduan, adibidez, eguraldia izan da oztoporik handiena. Pista goitik estalita dago, baina azken asteetan izan dugun eguraldiak ez du lagundu: haize oso bortitza izan dugu, ura sartu da eta lurra busti egin da. Ondorioz, arrisku gehiago izan dira irratitzeko eta min egiteko, baina ezin gara kexatu.

Kirol sakrifikatua da tenisa?

Bai, baina kirola ezagutarazteko ikuspuntutik. Bailara honetan ez dago afizio handirik, eta guk hori aldatu gura dugu. Kirol entretenigarria da, benetan, eta, denbora luzea eskaintzen badiot ere, merezi duela uste dut, eta lanean jarraitzeko gogoia daukat.

Hasiera ona izan dute Dorletako Amako txirrindulariek

Parte hartu zuten bederatzi txirrindulartatik bost igo ziren podiumera Itsasondon jokaturako proban

A.A ARRASATE

Gustura ekin diote txirrindulari gazteek denboraldi berriari. Bi urte luzeko etenaldiaren ondoren, Asteasun jokatu zen BTT lasterketan egin zuten estreinaldia, eta pozik bueltatu ziren. Domekan, hilaren 19an, Itsasondon izan ziren lehiatzen, eta emaitza onak lortu zituzten.

Nor bere mailan

Benjaminetan bi txirrindularik parte hartu zuten, Oinatz Bailezek eta Nile Agirretzek. Bakoitza tokatzen zitzaion mailan lehiatu zen eta biek lehen postua eskuratu zuten. Kimuetan, berriz, Oxel Kortabarria, Ainhoa Plaza, Katixa Navarro eta Maialen Sancho lehiatu ziren. Nesketan, Katixa Navarro izan zen irabazlea eta atzetik Ainhoa Plazak bigarren postua lortu zuen. Taldeko infantilak ere bertan izan



Itsasondoko lasterketan. DORLETAKO AMA

ziren eta Izortz Llodio, Beñat Plaza, Unai Ormaetxea eta Manex Larrañaga izan ziren maila horretako parte hartzaileak. Unai Ormaetxea aramaioarra hirugarren postuan sailkatu zen. Lasterketekin jarraitzeko gogotsu daudela adierazi dute.

Bolunburuko krosean emaitza onak lortu dituzte arrasatearrek

Arraten izan zen lasterketan lau arrasatearrek hartu zuten parte eta bakoitza bere mailan lehiatu zen

A.A ARRASATE

Lander Lanzosek infantil mailan egin zuen arineketan eta lehenengo postua eskuratu zuen. Olatz Martinez eta Aritz Aretxaga, berriz, 16 urte azpiko kategorian lehiatu ziren: Martinezek bigarren postua eskuratu zuen eta Aretxagak, berriz, bosgarren amaitu zuen. Azkenik, Amaiur Aranak 18 urte azpiko kategorian egin zuen korrika eta hirugarren amaitu zuen lasterketa.

Bezperan, Donostian

Anoetako belodromoan, zapa-tuan, beste hainbat atleta izan ziren LPLko bigarren jardunaldian lehiatzen. Jardunaldi horietan ez dago irabazlerik, atletek beraien marka pertsonalak hobetzeko antolatzen dira, eta, marka ona lortuz gero, Euskadiko edo Espainiako txa-



Aretxaga, Arana eta Lanzos. ARRASATE AT

pelketetarako sailkatzera heldu daitezke.

Hamahiru atletak parte hartu zuten, eta, Jon Ormaetxea Arrasate Atletiko taldeko entrenatzaileak adierazi duenez, goizegi da oraindik zer gertatu daitekeen aurreikusteko.

Kultura ekitaldiak urtea bukatzeko eta hasteko

Askotariko kultura proposamenak izango dira datozen egunetan Amaia antzokian eta kaleetan zehar Udalaren, Santamas Komisiñoaren eta herriko beste eragile batzuen eskutik; udal aretoetara sartzeko ezinbestekoa da 'COVID-pasaportea' erakustea

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE
Kubako doinuak Amaia antzokiraino gerturatuko ditu Ruper Ordorika musikariak gaur, eguna, 19:30ean hasita izango den kontzertuan; izan ere, abendu hasieran argitaratu zuen *Amour eta toujours* diskoa aurkeztuko du. "Disko berezia da niretzako, egiteko bidea oso ezberdina izan delako, eta entzun duenak ere nabardura ezberdina sumatuko dituela uste dut. Tinbrikoki guztiz bestelakoa da diskoa, Afro-Kuba giroko kantuak egitea zen-eta hasieratik genuen asmoa. Nire kantuak dira, baina hango musika-gakoa edo giltza erabilita. Doinuez

gainera, kantuen hitzek ere Kubaraino hurbiltzen gaituzte, hango bizipenak eta istorioak dira-eta kantuen oinarri nagusia. Nik idatzitakoak dira gehienak, baina badira, esaterako, Joseba Sarrionandiaren eta Eva Linazasororen kolaborazioak ere. Eta badira aurrez argitaratutako bi kanturen moldaketak ere *-Haizea garizumakoa* eta *Zorioneko moilan-*, azaldu du Ordorikak.

Sei lagun izango dira agertokian; Mugalariez gainera, Eduardo Lazaga perkusionista kubararra eta Nando de Las Casa izango ditu oñatiarrak lagun. *Arrasate.eus* atarian eta Amaia

antzokiko leihatilan eskura daitezke sarrerak, hamar eurotan.

Gabon kantuak eta gehiago

Udalak eta Komisiñoak elkarrekin antolatuta, kaleetan zehar Gabonetako kantaldia egingo du Goikobaluk bihar, egubakoitza, 19:00etan hasita, eta goizean, 11:00etan hasita, Leuneko seikoteak alaituko ditu kaleak gaita, metala eta perkusio tresnak erabilita.

Urteko azken egunean, Txorbelaren kantaldia izango da, 18:30ean, kaleetan zehar. Eta urteroko ohiturarekin jarraituz, Arrasate Musikaleko Bandak



Ruper Ordorika eta bere musikariak Amaia antzokian izango dira gaur. GOIENA

Gabon zaharreko kontzertua egingo du, 13:00etan, Amaia antzokian. Mikel Markiegiren zuzendaritzapean, Joaquín Orenategaren, Beethovenen, Mocororen eta Beobideren eta Morriconeren obrak interpretatuko dituzte. Sarrera doakoa da.

Iheskide eta Anita Parker

2021eko Kooltur Ostegunak kontzertu zikloa borobilduko du Elorriko street-punk Iheskide taldeak; abenduaren 30ean izango da, Arrasateko gaztetxean.

Irati Topalekuan, berriz, Anita Parker taldea izango da abenduaren 25ean, 23:00etan hasita, eta Doyle And His Guitalele taldea hurrengo egunean, 13:00etan; sarrera doakoa da.

Datorrenean, gehiago

Kooltur Ekintza taldekoak ari dira urtarrileko egunenarako kontzertuak lotzen; urtarrilaren 13an izango da lehenengoa.

Udalak ere prest du urtarrilerako eskaintza, eta antzerkiak presentzia handia izango du.

Garazi Prietok irabazi du Bibliotekaren Bookface Lehiaketa

Liburu baten azalarekin mimitizatutako argazki bat ateratzea da *bookface*-a. Formatu horretako hainbat lehiaketa egin ditu Arrasateko Bibliotekak; 12 eta 16 urte arteko gazteendako izan da proposatu duten azkena.

33 lan jaso dituzte, guztira, eta, horien artean, Garazi Prieto Fernandezek egindakoa izan da epaimahaikideen ustez onena. Askotariko liburuak erabilita -formatu eta genero askotarikoak- irudi ikusgarriak jaso dituzte oraingoan ere.

'Arrasate.eus'-en lan guztiak

Amooorr es cosa de muchos (Louise Rennison) liburuak aukeratu du Prietok bere sorkuntza lana egiteko, eta Elkar liburu-dendan erosteko 150 euroko bonua jaso du opari, egindako lanagatik. Argazki irabazlea eta parte hartu duten gainontzeko guztiak *Arrasate.eus* atarian, Bibliotekaren atalean, daude ikusgai, eta baita Kulturateko Bibliotekako eskaileretan ere.



Urtea ondo bukatu eta hobeto hasteko ekintzak

Bertso saioa, tailerrak, ikus-entzunezkoak, mendi irteera... Askotariko ekintzak egingo dituzte hurrengo egunetan Aramaion. Guraso elkarteak antolatuta, Olentzeroren eta Mari Domingiren etorrera izango dute etxeko txikiak bihar, 18:00etan

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO

Gabon jaietarako egitaraua zabaldu du Udaleko Kultura Sailak herriko zenbait eragileekin batera. Gaur, esaterako, Aramaixoko Bertso Eskolak antolatuta, bertso saioa egingo da kultura etxean, 19:00etan. Paula Amilburu, Maialen Lujanbio, Jone Uria eta Julio Soto izango dira bertsolariak. Sarrerak 5 eurotan jarriko dituzte salgai.

Olentzero eta Mari Domingi

Hitzordu garrantzitsua izan zuten atzo, eguaztena, eskolan: Olentzeroren eta Mari Domingiren bisita. Gainera, LHko 6. mailako neska-mutikoek gertatutako txistorra jan zuten patioan. Arratsalde partean, hainbat tailer egin zituzten: ihes gela, karaokea eta mahai jolasak, besteak beste.

Bihar, barikua, Olentzero eta Mari Domingi herrira etorriko dira. Guraso elkarteak antolatuta egingo dute harrera, 18:00etan, herriko plazan.

Umeendako tailerrak

Udalak umeendako tailerrak antolatu ditu. "Beste urte batzuetan ondo funtzionatu izan duten tailerrak errepikatuko ditugu", dio Kultura teknikari Itxaso Aspiazuk. Abenduaren 27an, gnomoak egingo dituzte; abenduaren 28an, hilorama tailerra izango dute –koadro batean koloretako hariak tenkatzea da hori–; eta abenduaren 30ean, zotzekin eraikitzen egingo dituzte. Umeen tailerretan aurrez eman behar zen izena eta dagoeneko izena-ematea itxita dagoela azaldu du Kultura teknikariak.

Gazteei eta nagusiei zuzendutako tailerrak ere egongo dira: abenduaren 28an, *kangoo jumping* saioa egingo dute kiroldegian; eta, abenduaren 29an *quilling* –paperarekin filigranak egitea–.



Olentzero eta Mari Domingi eskolako patioan. SAIOA URIARTE

Gabonetako egitaraua

Abendua

- **Eguena, 23.** 19:00etan, bertso saioa.
- **Barikua, 24.** 18:00etan, Olentzero eta Mari Domingi.
- **Domeka, 26.** 19:00etan, *Azarnak* dokumentala.
- **Astelehena, 27.** 12:00etan, 4 urtetik gorako umeendako tailerra: Gabonetako gnomoak.
- **Martitzena, 28.** 12:00etan, 8urtetik aurrerako umeendako tailerra: Gabonetako hilorama.
- **Martitzena, 28.** 17:30ean, *Kangoo jumping* kiroldegian.
- **Eguaztena, 29.** 11:30ean, ipuin kontalaria
- **Eguaztena, 29.** 17:30ean, *Quilling* tailerra 14 urtetik gorakoendako.
- **Eguena, 30.** 12:00etan, 4 urtetik gorako umeendako *Zotzekin eraikitzen* tailerra.
- **Barikua, 31.** 08:30ean, Orixolera mendi irteera.

Urtarrila

- **Domeka, 2.** 19:00etan, *Awlad. Hesiak gainditu* dokumentala.
- **Astelehena, 3.** 17:00etan, umeendako disko-dantza kiroldegian.
- **Martitzena, 4.** 16:30ean, puzgarriak kiroldegian.

Orixolera irteera

Orixol Mendizale Elkarteak antolatuta, Urtezahar egunean Orixolera irteera egingo dute. 08:30ean elkartuko dira, kiroldegian. Urtea ondo amaitzeko modu paregabea izango da.

Gabon jaietan, dokumentalak ikusteko aukera ere egongo da. *Azarnak* lana jendeak gogoratzen ez dituen umeetako bizipenak buruzkoa da; eta adin txiki-ko iheslarien gaia lantzen da *Awlad. Hesiak gainditu* lanean.



NIRE USTEZ

MARKEL ARRIOLABENGOA

Urtxakurra

Azken asteotan notizia izan da Urumea ibaiaren bueltan ikusi duten Igaraba. Diotenez, duela 75 urte utzi zuen urtxakurak eremu hori, eta zorientasuna nabari da bueltan delako. Izan ere, ibai-ekosistemen suntsiketak eta ehizak Euskal Herriko igaraba gehienak desagerrarazi zituen pasa den mendean; ia galtzeraino. Beraz, animalia honen bisitak ekosistema hauek lehengoratzeko esperantzara ere gerturatu gaitu.

Bide hori, esan beharrik ez dago, oso luzerako doa. Baina, pixkanaka, gertuago dago. Izan ere, Aramaion ere ikusi dugu igaraba; bueltatu da zenbaitek zeharo mitifikatuta genuen animalia.

Hala ere, esan bezala, lan luzea dugu oraindik gure herriko ur-ekosistemak egoera on batera bideratu artean. Ekidin beharko ditugu ibai ertzeko basoen mozketak eta hondakin kutsakorren isuriak. Oro har, eman beharko diogu babes handiagoa urari.

Alabaina, gaur-gaurkoz, badugu guk ere zer ospatua.



ROSA MONDRAGON

Bikoizketa lehiaketan saridun

Eskola mailako hamalau taldek parte hartu zuten bikoizketa lehiaketan, eta horietatik bi talde saritu zituzten, 75 euroko bonu banarekin. Nagusietan, berriz, bi talde aurkeztu ziren eta berdindu egin zuten: 80 euroko bonu irabazi zuen talde bakoitzak. Jurgi Etxebarria eta Oihana Ameskoa izan ziren epaimahaikideak.

Nahia Garcia seigarren izan da Espainiako Kopan

Cuencan, Tarancon herrian jokatu zuten abenduaren 19an Espainiako Kopako azken proba puntuagarria. Nahia Garcia aramaioarra seigarren sailkatu zen kadeteen kategorian. Txirrindularia gustura dago egingutako lanarekin, baina nabarmendu du "maila handiko" lasterketa izan zela. 11 kilometroko proba izan zen.



Garcia, bizikleta gainean. NAHIA GARCIA



Zero kilometro: batzen gaituen distantzia.
2022 on!

Larraitz Garai Zapata
artista aretxabaletarrak
Goienarendako egindako irudia.

goiena[“]
KOMUNIKAZIO TALDEA

Hamahiru milioi euroko aurrekontua 2022rako

lazkoarekin alderatuta %4,7ko igoera izan du, eta proiektu estrategikoei heltzeko asmoa dauka Udal Gobernuak; besteak beste, Santa Kurtz kaleko lanei eta adinekoendako gizarte zentroari; EH Bilduk ez du babestu aurrekontu hori

Mirari Altube ARETXABALETA

Urtea bukatu aurretik onartu gura izan du Udal Gobernuak 2022ko aurrekontua, eta atzo, abenduak 22, iluntzean ziren egitekoak ezohiko osoko bilkura. Aurretik iragarritako legez, 13.139.245 euroko aurrekontua aurkeztu zuten, iazkoarekin alderatuta %4,7 handiagoa. Igoera hori Udal Finantzaketarako Foru Funtsetik datorrela, batez ere, jakinarazi dute; izan ere, iaz baino ia 700.000 euro gehiago jaso ditu Udalak.

Era berean, Ibarra kiroldegiko kreditua ordaintzen bukatu dute aurtun. Eta 2021eko ekitaldian eskatutako kreditua -2,6 milioi euro ingurukoa- 2022ko aurrekontuan txertatuko dutela iragarri dute. "Horrekin proiektu estrategikoei eta beste batzuei aurre egingo die Udalak", adierazi du Unai Elkoro alkateak, eta gaineratu "zuhurtziaz" egingo direla aurrekontuak direla: "Suse perraldi ekonomikoaren testuinguru baten barruan, une bakoitzean sor daitezkeen egoera eta beharrei erantzuteko".

EH Bilduren babesik ez

EH Bildu aurrekontuaren aurka agertu da: "Aldaketa bat planteatu genuen; bai udal barruan talde politikoen artean parte hartzeko moduan eta bai herriartekin batera, kulturaren arloko planteamendu berritzaile batean, adibidez. Haien aurrekontuei gure babes eskaini genien baina, parte-hartzea eta lankidetzaren alde batera utzi dituzte", adierazi du Ion Albizu bozeramaileak, eta gaineratu: "Ezin dute gure babesik izan klima-aldaketaren alde inolako alahagin ekonomikorik eginen ez bada, elizateetan hobekuntza esanguratsuak egitea alboratzen bada edo haur guztiek eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzeko aukera berberak izateko beka bat ukatzen bada".

"Kanpaina egiten"

Alkateak erantzun du "kanpaina eta politika" egiteko erabili dituela aurrekontuak EH Bilduk: "Bestela, ez dago ulertzerik hamahiru milioi euroko aurrekontu batean 100.000 euroren buel-

tako emendakinak egitea; huseria. Eta, gainera, erdia onartzeko gertu egonda gu". Gaineratu du Gobernu batzordean oposizioaren parte hartzea zabalik utzi zutela bere garaian, eta orain ere hala dagoela.



Adinekoendako gizarte zentroa kokatuko den komentua. M.A.

Proiekturik garrantzitsuenak:

Santakurtz kaleko lanak:	ia 1.000.000 €
Adineko pertsonen gizarte zentroa, komentuan	965.000 €
Lausitta auzoko lanen proiektua idaztea	150.000 €
Andra Mari auzoko kantxa iragazgaitzea	500.000 €
Komentua ingurunean integrazteko proiektua idaztea	54.450 €
Lan txikietako urbanizazioak	100.000 €
Ibarra futbol zelaiko belar artifiziala aldatzea	200.000 €
Kiroldegi aurreko berdegunerako erabilera berriak aukeratzeko partaidetza prozesua: 55.000 € -25.000 euro € aurrekontutik eta 30.000 € 2022koan-	
Arkupeko klimatizazio sistema berritzea:	85.000 €
Gazteen emantzipaziorako dirulaguntzak:	30.000 €
Nerabeen eta gazteen artean genero indarkeriaren aurka jarduteko protokolo barruko sentsibilizazio ekintzak: 5.000 €	
Esku-hartze sozioedukatiboko eta psikosozialeko zerbitzuaren lizitazioa -kale-hezkuntza programarekin-: 132.000 €	
Jaiak: 60.000 eurotik (2021) 190.000 eurora igo (2022)	
Arkupeko kultur programazioa: 68.000 eurotik (2021) 80.000 eurora igo (2022)	
Kale animazioa: 45.000 eurotik (2021) 60.000 eurora igo (2022)	



Sareko kideak eta herriko hainbat mendizale egitarauaren berri ematen. M. ALTUBE

Espetxe politika aldatzeko eskaera abenduaren 31n

Kurtzebarritik eta Herriko Plazatik aldarrikatuko dituzte Gari Garciaren zein gainerako presoek eskubideak

M.A. ARETXABALETA

Kurtzebarritik Herriko Plazara, Gari Atxabaltara! leloarekin, bi ekitaldi prestatu ditu Sarek abenduaren 31rako: Kurtzebarritik tontorrera igoko dira (11:00), talde argazkia ateratzeko, eta iluntzean (19:00), musikariek lagunduta, elkarretaratze berezia egingo dute Herriko Plazan, urteko azken egubakoitze izanik. Azken hilabeteetan espetxe politikan aldaketak gertatu izana agerikoa dela adierazi dute Sareko kideek, baina gaineratu dute oraindik EPPKren erdia 200 kilometrotik gora dagoela

sakabanatuta. Espetxe politika iraultzeko gizartearen aktibazioa beharrezkoa dela uste du Sarek, "giza eskubideak errespetatu arte eta elkarbizitza eta konponbidea lortu arte".

Gari Garcia Arrieta aretxabaletarra iazko azarotik dago Zaballan, baina bere graduaren progresioa guztiz blokeatuta dagoela adierazi du Txarli Garcia kideak: "Espetxe politika arrunta aplikatzea eskatzen dugu, eta horrek eskaintzen dituen pausoak ematea: graduaren progresioa, baimen bereziak, baldintzapeko askatasuna...".

'Aretxabaleta. Hamaika ibilaldi eta istorio' liburua salgai

Loramendi euskara elkarteak *Aretxabaleta. Hamaika ibilaldi eta istorio* liburua argitaratu berri du. Herriaren bueltan egindako hamabi ibilaldi toponimikoetako informazioa jaso dute, eta dagoeneko salgai daukate, 20 eurotan; interesatuek Gorka Madinabeitiarekin edo Julen Abasolorekin jarri behar dute harremanetan. Behin Gabonetako oporrak bukatutakoan Loramendin bertan ere salduko dutela jakinarazi dute, eta aurkezpen ekitaldi bat egingo dela Arkupen.

Gaineratu dute liburuko hamabigarren ibilbidea oraindik ez dutela egin eta asmoa dela urtarrean egitea.

2002an jaiotako kintoen dantzak abenduaren 29an

Martxoan bi urte beteko dira pandemia hasi zenetik eta tarte horretan Santa Ageda neska-mutil izatea egokitutakoek ezin izan dute egin inolako ospakizunik. Horregatik, datorren eguaztenean, hilaren 29an, 2002an jaiotako 50 bat neska-mutilek dantzan egingo dute Herriko Plazan (19:00). Dagoeneko eginga dute dantza entsegu bat, eta datorren astelehenean beste bat egiteko asmoa daukate.

Santa Ageda eguneko ohiturari eutsiz, dagokion moduan jantzita irtengo direla egun horretan adierazi dute, eta etxerik etxe kantuan, eta, eskean ibiliko ez badira ere, bazkaltzeko elkartzeko asmoa daukate.

Hiruatxen hurrengo proiektua, Andeetan

Aretxabaletako elkarteak, Mundukiderekin elkarlanean, Ekuadorko mendi ezagunetan dagoen Intag haranean kokatu du hurrengo egitasmoa, eta sistema immunologikoa indartzeko ekoizpen agroekologikoa bultzatzea du helburu, tradizioan oinarrituta

Mirari Altube ARETXABALETAK

Hiruatx gobernuz kanpoko elkarteak, Mundukiderekin batera, Ekuadorren abiatu du hurrengo proiektua; Andeetan kokatutako Intag haranean, hain zuzen ere. Hala jakinarazi diete laguntza ematen dieten aretxabaletarrei egunotan, gutun bidez. Proiektu berria pandemiaren itzulinguruari erabat lotua dagoela adierazi dute Aretxabaletako GKEko kideek: "Intageko kontserbazio eta erabilera jasagarriko eremuko nekazari-komunitateak COVID-19ak sortutako osasun larrialdiari emandako erantzun gisa arnas sistema eta sistema immunologikoa indartzeko praktika tradizionalen erabilera biziberritzea da asmoa".

Arnas sistema indartzeko

Intag harana Ekuadorko iparraldean dago, eta zona menditsua, emankorra eta bioanitz dela jakinarazi dute. Kobre-erreserba garrantzitsuak ditu: "1990az geroztik lurraldearen %70 us-tiapenerako eman zaie meatzaritza metalikoko enpresei". Egoera horretan, 60 nekazari-ekin -55 emakume eta bost gizon- hasi dira lanean Hiruatx eta Mundukide: "Familiako bu-ruak dira, seme-alaba adingabeak dituzten gurasoak. Hortaz, familia arteko ekonomia du ardatz agroekologian oinarritutako proiektuak".

Hiru ekintza zehaztu dituzte horren bueltan. Batetik, formakuntza dago, eta familien baratzek landare berriei integratzeko ibilbide orria zehaztuko dute; landare horiek izango dira arnas sistema immunologikoa indartzeko -infusiorako belarrak, erremedio edangarrietarako landareak...-

Bestetik, finkak ezartzea eta horiei jarraipena egitea daude, eta, horretarako, familia bakoitzaren baratzetan landare be-



Ekuadorko Intag haraneko proiektuaren bueltako hainbat kide. HIRUATX

60 NEKAZARIREKIN EGINGO DUTE LAN, NATUROLEA IZENEKO BIOALKOHOLA EKOIZTEKO

rriak ezartzeko laguntzak eman-gotuzte; hautatutako espezieen landareak eta sustraiak erosiko dituzte eta nekazariari banatuko dizkiete.

Eta hirugarren pausoa da produktu berria ekoiztea. "Naturalea du izena, bioalkohola da, eta tokiko jatorrikoa. Ezaugarri prebentiboak dituzten beste produktu batzuekin batera merkaturatuko da", argitu dute.

Kolonbian eta Amazonian

Aurten hasiera emandako proiektuarekin batera aurretik abian jarritakoak bide onetik doazela jakinarazi dute. Horien artean dago Kolonbiako Quillisanga etniako 59 emakume nekazari indigenarekin garatutakoa, Mundukiderekin elkarlanean hori ere: "Ekoizpen agroekologikoa sakondu eta zuzenean merkatu-ratzeko bidea zabalduz".

Bestetik, Ekuadorko Amazonian bizi diren kitxua emakumeen ahalduztze ekonomikoa lortzeko proiektua dago abian, bertako Wiñak erakundearekin batera garatutakoa; kakaoa, wayusa eta platanoen ekoizpen ekologikoa izan dute ardatz horiek. "Wiñakeko lagunek urte askoan erakutsitako konpromisoari eta lan gaitasunari eutsi diote, eta jarritako helburuak bete dira %100", adierazi dute Hiruatxekoek.

Laguntzeko bideak

Azken urteko pandemiak mundu mailako premiak areagotu egin dituela adierazi dute Hiruatxeko kideek; horregatik, "gustura" agertu dira joan den zapatuko Neguko Azokan aretxabaletarrek emandako babesarekin: "Bidezko merkataritzako produktu asko saldu genituen eta Aguraingo moja klaratarrek egindako turroi guztiak ere bai".

Eskerrak ematearekin batera proiektuak laguntzen jarraitze-ko kontuak dituztela zabalik gogorarazi dute; herritarrek Fiarera, Laboral Kutxara eta Kutxabankera jo dezakete diru-ekarpenak egitera.

Bertso saioa, bi antzezlan eta gospelsa datozen egunetan

Olentzerok eta Mari Domingik desfilea egingo dute, baina geldialdirik ez; gutunak Arkupen utz daitezke

M.A. ARETXABALETAK

Osasun egoerak baldintzatuko ditu datozen egunetako ekitaldiak, baina, ondo bidean, Gabonetan ohiko diren hitzorduek ez dute hutsik egingo. Gaur, eguna, bertso-jaialdia izango da Arkupen (19:00) eta hango oholztan elkartuko dira Ane Zuazubiskar -Ane Labakaren orde-; Maialen Aki-zu, Beñat Gaztelumendi eta Aitor Mendiluze -Unai Iturriagaren orde- bertsolariak; gai-jartzaile lanetan, oster, Ane Ezenarro- jardungo du.

Abenduaren 29an, gospel doinuekin beteko da Arkupeko Zaraia aretoa, The Spolem Girls taldearen eskutik (19:00). Eta Txalo Produkzioak konpainiak umorez betetako bi antzezlan ekarriko ditu datozen egunetan: hilaren 26an, *Konpromisoa*; eta urtarrilaren 2an, *Losers*. Biak dira 19:00etan.

Desfilea, geldialdi barik

Olentzero eta Mari Domingi, ohi lege, abenduaren 24an iritsiko dira. Harrerarik ez da izango, baina desfilea bai, kiroldegitik abiatuta (18:30). Udalak jakinarazi du pandemiari aurre egiteko segurtasun neurriak jarraituz egingo dela ibilbidea, eta ez dela egingo geldialdirik, ezta Herriko Plazako ekitaldirik ere. Txistulariek eta hoge bat lagunek zuziekin lagunduta ibiliko dira kalez kale, eta eskatu dute jende pilaketak saihesteko eta maskara erabiltzeko kalejiran. Umeez ez dute gutunak emateko aukerarik izango; horregatik, Arkupeko sarreran postontzia jarri dute. Bihar arte utzi ahal izango dira bertan.

Osasun egoerak ahalbidetzen badu formatu bera jarraituko da Bizarzuriren eta Errege Ma-goen desfilean.

Herriko pilotarien arteko partidua bihar Iturrigorrin

Ohiturari eutsiz, herriko pilotari-ekin lehian jardungo dute bihar, abenduak 24, goiz partean. Guztira, 44 bat gaztetxo dabil-tza UDAko pilota taldean, eta gehie-nak elkartuko direlakoan dago Juan Mari Errasti entrenatzaile-a: "Benjaminetatik hasi eta senior mailara artekoen parti-duak izango dira. Eta gero, sa-ritxo bat jasoko dute".

Domeka goizean, oster, Gi-puzkoako mendebaldeko txapel-ketaren finala jokatuko du Unax Gonzalez infantil aretxabaleta-rrak, Azpeitiko Arangurenen aurka; Iturrigorrin izango da partidua.

Bestetik, Debagoieneko Gabo-netako Kopa ere jokatuko dute Aretxabaletako pilotari-ekin, hila-ren 27an hasita; ligaxka eran izango da lehen fasea eta Iturri-gorri bertan ere izango dira partidua batzuk. Finalak, oster, Oñatin izango dira.

Erakusleihu lehiaketan botoa emateko epea, ixtear

Herriko erakusleihorik gustu-koena hautatzeko aukera dute herritarrek aurten ere. Aben-duaren 26ra arte eman ahal izango dute botoa Arkupen jarri duten kaxan, Udalaren webgu-nean zintzilikatutako galdetgia beteta eta komertzioetan jarri-tako QRren bidez. Botoa eman-dakoen artean 50 euroko bonua zozketatuko du Udalak.

**Mobiliario
ARENZA**

**ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA**

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETAK

Aurrekontuak aho batez onartuta, "historikotzat" jo ditu Udal Gobernuak

2022rako aurrekontua 5,3 milioi eurokoa izango da -5.321.120 euro-, iaz baino %3,2 txikiagoa. Nabarmentzekoa izan da udal talde guztiek aho batez onartu dutela, oposizioaren ekarpenak aurrekontuan txertatu eta adostasunera iritsita

Imanol Beloki ESKORIATZA

Eskoriatzak duen egoera epidemiologikoa kontuan hartuta, era telematikoan egin dute asteon abenduak ezohiko osoko bilkura udalbatzako kideek, eta gai-errendatik azpimarratzekoena 2022ko aurrekontuak aho batez onartu zituztela izan zen. Josu Ezkurdiak, EAJko bozeramaileak, hartu zuen lehenbizi hitza, eta honela laburbildu zituen aurrekontuak, zenbait xehetasun emateaz gain: "Iaz, hankaz gora jarri behar izan genituen aurrekontu guztiak pandemiaren eraginez, eta aurtun, egonkortu egin dira. Hala, agintaldi honetako ildoari jarraituz, apustua egin dugu inbertsioen aldetik, eta baita dirulaguntza arruntan aldetik ere. Hau horrela izan daiteke Foru Funtza ohiko kopurura iritsi delako; guztira, hiru milioi pasako kantitatea izango da; iaz aurreikusten genuena baino %11 gehiago. Pertsonal gastuek, legeak agintzen duen moduan, %2ko igoera izango dute, eta gastu arruntak eta mantentze gastuak eten egin ditugu; udal ekintzak egin ahal izateko, eta dirulaguntzak mantendu ahal izateko, eta baita inbertsioko kapitulu garrantzitsu bat egiteko...". Horrekin batera, honako hau gaineratu zuen: "Bi udal taldeei eskertu nahi diet beraien jarrera, aurrekontu hauek kopuruagatik ez, baina onarpen aldetik historikoak izango direlako. Beraz, poztekoa da".

Lau inbertsio nagusi

Lau inbertsio nagusi azpimarratu zituen ondoren Ezkurdiak: Elizateetara 106.000 euro bideratuko dituzte, Dorleta auzoko jolas-parke berrirako 80.000 euro, Luis Ezeiza herri eskolako la-

netarako 50.000 euro eta Gatz Bidea hobetzeko eta mantentzeko 15.000 euro.

Diru sarrerei dagokienez, Foru Funtsetik jasotakoaz gain, 1,1 milioi zerga zuzenetan jasoko du

Eskoriatzako Udalak: IBIak eta ibilgailuak. Gastuei dagokienez, honako hauek dira zenbakiak: pertsonal gastuetan 1,8 milioi euro, gastu arruntetan 2,6 milioi euro, dirulaguntzetan 0,5 mi-

lioio euro eta inbertsioetan 0,33 milioi euro. Horrekin batera, gastu arruntak eten egin dituzte, eta jasagarritasunaren aldeko apustua egin dute: energia plan-gintza, eguzki argiteria eta abar. Gizarte babesaren indartu egin dute (734.000 euro) eta landa eremura 209.000 euro bideratu, lehenengo sektorea bultzatzeko eta elizateko bizi-baldintzak hobetzeko.

Dirulaguntzak banatzeko egitura antolamendua aldatuz, hiru ataletan banatuko dute dirua: euskarara 105.895 euro, gizarte babesera 118.054 euro eta kirolera 68.256 euro. Horrekin batera, Eskoriatzako Kirol Elkartek 33.200 euro (+10,7) jasoko ditu eta musika eskolak 50.000 euro (+2).

EH Bilduren adostasuna

EH Bilduk hiru emendakin egin zituen, eta horiekin zein Udal

Gobernuak ezarritako beste puntu batzuekin ados egonda, Nestor Arana EH Bilduko bozeramaileak honela azaldu zuen beraien baiezkotza: "Hiru emendakin egin ditugu, baina ikusi dugu iazko batzuk ere txertatu direla. Puntu gehienetan ados egonda, hor gure baitza. Garrantzitsuenak da Goienaren aurrekontua, bere baitan, adostutako horretara itzultzen dela, eta begi onez ikusten dugu, iaz eztabaidatu genuen moduan. Guretzat elementu esentziala izan da gure baiezkotza emateko. Horrekin batera, zaharren egoitzara begira, *Pausu berriak* ekimeneko partida pixka bat igotzea eskatu dugu, eta jaso da, lehen sektorerara begira ere, gure emendakina aurrekontuetan ez sartu arren, nahiz eta daudenak begi onez ikusi, makineria eskuratzeko izango litzateke. Landuko dela ikusi dugu elizateekin batera, eta egoki ikusi dugu. Bestetik, eskolako obrak ere egin dira, baina badaude beste behar batzuk, eta hor bat gatoz. Gatz Bidea ere bada ados gauden puntu bat. Gatzagako herritarrekin hainbat urtean egindako elkarlan hori indartu egingo litzakeelako. Trantsizio energetikoaren inguruan ere behar batzuk ditugu, eta bat gatoz plan hori konkretatzea komeni dela...".

Elizateak, konforme

Eskoriatzako Elizateen Elkar-teak ere konforme geratu ziren aurrekontuekin. Honela adierazi zuen Leire San Vicente bozeramaileak: "Bi proposamen egin genituen; diru kopuru totalean ez zuten eraginik, baina, partiden arteko konpentsazio bat egiteko proposamena zen. Bata, bideen mantentze-lanetarako 8.000 euroko partida 15.000 eurora igotzea izan da, aurrekontu hori bere osotasunean izanda, solbentzia gehiagorekin hartu daitezkeelako erabakiak. Hori egiteko, inbertsioetako partidatik murrizketa bat egitea erabaki zen, 25.000 eurotik 18.000 eurora. Begi onez ikusi zen. Horrez gain, aurrera begira, taxi proba pilotua ere ikusi beharko litzateke nondik finantzatzun dugun...".

Aurrekontuak aho batez onartuta, Joserra Zubizarreta Eskoriatzako alkateak hau esan zuen: "Alkate bezala harro nago gaurko emaitzarekin. Eskerrik asko guztioi; poztekoa da".

Inbertsio nagusiak



Elizateak Eskoriatzako elizateetako argiteria eta bideen hobekuntzetarako 106.000 euroko partida ezarri dute.



Luis Ezeiza Herri Eskola Aurtun egindako lanekin jarraituz, beste zenbait lan egiteko 50.000 euro bideratuko dituzte.



Dorleta auzoko haur-parkea Herritarren eskaerei erantzunez, 80.000 euroko partida ezarri dute jolas-parke berria egiteko.



Gatz Bidea Eskoriatza eta Leintz Gatzaga arteko aisialdi-gunera begirako bidea hobetzeko 15.000 euroko partida bideratuko dute.

Eñaut Elorrietaren doinu goxoak entzungai

Eñaut Elorrieta sortzaile eta abeslariaren kontzertua izango da abenduaren 26an, 19:00etan, Zaldibar antzokian. Eskoriatzako Udalak jakinarazi duenez, oraindik badaude gernikarrak egingo duen emanaldirako sarrerak Manuel Muñoz kiroldegian

Imanol Beloki ESKORIATZA

Eñaut Elorrieta abeslariak *Irteera argiak* izeneko bere azken diskoko kantuk eskainiko ditu abenduaren 26an, 19:00etan, Eskoriatzako Zaldibar antzokian. Ken Zazpi taldeko ahots izandakoak bederatzi kantuz borobildu zuen diskoa 2019an, eta, bestek beste, *Zaldia eta behelainoa*, *Inesa Gaxen*, *Eguzki argitan* kantu ederrak eskainiko ditu. Hala ere, seguru ez dela ahaztuko jarraitzaile sutsuez eta bere ibilbide musikal zabaleko kantu ezagunenak ere eskainiko dituela.

Elkarlanean ondua

Bere hitzak ondu ez ezik, beste idazle batzuen testuak ere musikatu izan ditu Elorrietak, hala nola Uxue Alberdi, Joseba Sarrionandia eta Jose Luis Otamendirenak. Horren adibide da bere azken diskoa; kantu lasaiekin osatuta, urte hauetan guztietan bildutako ezagutza guztia



Eñaut Elorrieta musikaria. ELORRIETA

jarri du konposizio berri hauen eta eszena-proposamen berrian. Adibide gisa, azken diskoko abesti preziatuenetako bat bertsonatu zuen Elorrietak, *Inesa Gaxen* izenekoa. Uxue Alberdik idatzi zuen Inesa Gaxeni buruz-

ko abestia, eta elkarrekin abestu dute Alberdik berak eta Elorrietak. Bikoteaz gain, Aitor Etxeberria izan dute ekoizle lanetan eta Iban Urizar *Amorante* tronpetarekin.

Ziurtagiria, ezinbestekoa

120 lagunentzat dago mugatuta Zaldibar antzokiko espazioa, eta dagoeneko 50 sarrera saldu dira jakinarazi du Eskoriatzako Udalak. Hala ere, sarrera gehiago salduko diren aurreikuspena dutela adierazi dute antolatzaileek. Horrekin batera, azpimarratu nahi izan dute *COVID ziurtagiri digitala* eskatuko dietela bertaratzen direnei: "70 sarrera geratzen dira oraindik, bost eurotan erosi daitezkeenak Manuel Muñoz kiroldegian edo *bibe.me* webgunean. Horrekin batera, *COVID ziurtagiria* eskatuko diegu kontzertura doazen guztiei", adierazi du Arantxa Unzuetak, Eskoriatzako Udaleko Kultura teknikariak.



SAN PEDRO ETA INTXAURTUETAKO JAI BATZORDEA

Material birziklatuekin apainduta

Gehienbat material birziklatuarekin egindako Gabonetako apaingarrien lehiaketak arrakasta izan du. Herritarrek Eskoriatzako zenbait txoko publiko apaindu dituzte egunotan. Saridunak nortzuk izan diren ere jakinarazita, apaingarriek urtarrilaren 7tik 10era bitartean kenduta egon beharko dutela gogorarazi du Eskoriatzako Udalak.

LEINTZ GATZAGA | 17



Gabon kantuan baserriz baserri aritu zirenekoa. GOIENA

Gabon eskean ez aritu arren, kantuk izango dira plazan

Gurel Guraso Elkartek deituta, abenduaren 24an 13:00etan batuko dira zenbait abesti kantatzeko

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Abenduaren 24an, Olentzeroren etorrerarekin batera, Gabon eskean aritzen dira Leintz Gatzagako haurrak baserriz baserri. Aurten, baina, ez dute ekin-tza gauzatuko. Gurel Guraso Elkarteko kideak aritzen dira urtero ekintza dinamizatzen, eta asteen zalantzak izan dituzte antolatu ala ez. Hori horrela, ezezkoaren aldeko hautua egin dute, eta ez dira baserriz baserri arituko Gabon eskean. Hala ere, 13:00etan, Herriko Plazan batuko dira zenbait herritar kantuan aritzeko.

Gabon kantak plazan

"Abenduaren 24an, Olentzeroren etorrerarekin batera, baserriz baserri aritzen gara kantuan, baina, gaur egun dugun egoera epidemiologikoa kontuan izanda, ez egitea erabaki dugu. Hala ere, plazan batuko gara herritar taldetxo bat, distantziak errespetatuz Gabon kantak abesteko", adierazi du Nerea Altunak, Gurel Guraso Elkarteko kideak.

Horrekin batera, Leintz Gatzagako Udalak urtero ateratzen dituen egutegiak ez dituzte haurrek banatuko baserriz baserri, betiko moduan.

Domeketan bisita gidatuak izango dira Gatz Museoan

Euskarazko bisitak 12:00etan izango dira eta gaztelarazkoak 13:00etan egingo dituzte

I.B. LEINTZ GATZAGA

Jaiegunetan izan ezik –abenduaren 25a eta urtarrilaren 1a–, bisita gidatuak egingo dituzte Gatzagako Gatz Museoan. Euskarazko bisitak 12:00etan izango dira eta gaztelarazkoak, berriz, 13:00etan. Gatz Museotik adierazi dutenez, oraindik ez da talderik osatu, eta interesa duenak aurrez deitu edo mezua bidali beharko du izena emateko. Erreserbak egiteko, 943 71 47 92 zenbakira deitu edo posta elektronikoko bat bidali beharko da reservas@gatzmuseoa.com helbidera.

"Irailetik hona jende dezente izan dugu Gatz Museoko bisita gidatuetan. Neurri batean, normalitatea izan da nagusi, eta, iazko datuekin alderatuz, balorazio positiboa egiten dugu, bisita kopurua dezentekoa izan delako. Ikusiko dugu zer-nolako harrera izaten dugun Gabonetan, baina jendea etorriko den aurreikuspena dugu. Beraz, etorri nahi duenak erreserba dezala bisita; ateak zabalik izango ditugu", adierazi du Aitor Larrañagak, Gatzagako Gatz Museoko arduradunak.

Kontrako botorik ez, hirugarrenez

Udalbatzak 27.814.040 euroko aurrekontua onartu du 2022rako, iazkoa baino %9 handiagoa, eta hirugarren urtez jarraian EAJren eta PSE-EEren abstentzioarekin onartu dira; Larramendiko plantaren aurka auzotarrek aurkeztutako mozioa onartu egin zen

Jokin Bereziartua BERGARA

Udalbatzak 27.814.040 euroko aurrekontu bateratua onartu zuen asteleheneko osoko bilkuran 2022rako, iazkoa baino %9 handiagoa. Kontrako botorik gabe onartu da 2022rako aurrekontua ere, EH Bilduren Udal Gobernuaren proposamenaren aurrean EAJ eta alderdi sozialista abstenitu egin zirelako.

Hirugarren urtez jarraian akordio politikoa lortu izanari balio handia eman zion Gorka Artola alkateak: "Borondatea eta gogoia dauden adostasunera heltzea posible da. Adostasun totala ez da existitzen, baina baditugu partekatzen ditugun ardurak eta proiektuak; konpromiso horiek akordio baten islatzea beti da ona herriarendako. Uste dugu bergararrek merezi dutela arduradun politikoan aldetik seriotasuna, elkarrekin lan egiteko gaitasuna, eta desberdinen artean lankidetzatza eta akordioak lortzeko ahalgina egitea. Desberdinen arteko ekarpenak aberastu egiten du proiektua".

EH Bilduren lehentasunak

EH Bilduko bozeramaile Nagore Iñurrategiren arabera, bergararren ongizatea bermatzeko helburuarekin sustapen ekonomikoari eta gizarte zerbitzuei bideratutako diru-poltsak handitu egin dira. Helburua izan da egoera zaurgarrian daudenek "zerbitzu duinak" izan ditzatela, "inor bazterrean gerra ez dadin".

"ZAURGARRIENEI ZERBITZU DUINAK EMATEA DA GURE LEHENTASUNA"

NAGORE IÑURRATEGI, EH BILDU

Horretarako, gizarte zerbitzuetara 2.583.000 euro bideratu dira eta sustapen ekonomikorako kopurua %15 handitu da 2021ekoarekiko -693.251 euro-. 2022rako proiektu nagusiak zeintzuk izango diren ere argitu zuen Iñurrategik; betiere, partida handienak irizpide moduan hartuta: "Diru partida handiena eroango duena Zubieta eta Masterreka berriro urbanizatzeko proiektua izango da eta Agorrosin [futbol zelaia] berritzeko proiektura ere inbertsio handia bideratuko dugu".

Zubieta eta Masterreka berriro urbanizatzeko, 2021eko partidari milioi bat euro pasatxo gehituko zaio eta Agorrosin Berrirako 600.000 euro aurreikusi dituzte 2022rako. Berezioki bi proiektu horiek "asko" baldintzatuko dute Udalaren inbertsio gaitasuna, baina ur txorrotak egiteko 300.000 euro aurreikusi dira eta jaietarako 373.670 euroko partida berreskuratu dute, besteak beste; azken bi partida horiek herritarren eskaerei erantzutera datoz, Udal Gobernuaren arabera. Bestalde, joan den astean aurkeztu zuten turismo planak ere izango du isla 2022ko aurrekontuetan. Plan horretara bideratutako aurrekontua 235.328 euro izatea onartu da. Hala dio Iñurrategik: "Gure herriko ondarea kanpoan ere ezaguna izatea nahi dugu, eta beste garai batzuetan izan zuen prestigioa berreskuratzen lagunduko du". 2022tik 2025era

"BESTE URTEETAKO KONPROMISOEN ZERRENDATIK EZ DA EZER GAUZATU"

IRUNE GALARRAGA, EAJ

arteko "turismo plan estrategikoa" litzateke, eta gaur egun eskaintzen den turismo eskaintza hobetzea du helburu: "Turismorako formatu berriak txertatu behar dira eta argi dugu pertsonalean inbertitu egin behar dela, arloko langile kualifikatu batekin; Bergaran ez da inoiz turismo arloko langilerik egon".

EAJ: akordioak idatziz eskatu

EAJ abstenitu egin zen, aurkeztu zituzten 18 proposametatik batzuk onartu egin direlako; jeltzaleen nahia zen 1.647.000 euro bideratzea 18 proposamen horietara. Hala ere, Udal Gobernuari alde aurretik hartutako konpromisoak exekutatu ez izana egotzi zioten jeltzaleek eta euren dako lehen-tasunezkoak diren bi proiektu nabarmendu zituzten. "Aurreko urteetan baiezkua eman izan digute, baina ez da konpromisorik gauzatu. Zerrenda ikusiz gero, ez da ezer gauzatu; horregatik, oraingoan, idatziz eskatu dugu konpromisoa. [...] Beharrak askotarikoak dira, baina bai azpimarratuko nahiko nuke Boluko lurjau-sirako bideratu den partida. Buru-belarri aritu gara horretan eta guri esker fase guztiak gauzatuko dira; izan ere, Udal Gobernuak alde aurretik proposatzen zuen partida oso murrizta zen", adierazi zuen EAJko Iruñe Galarragak.

Hain zuzen ere, Boluko lurjau-siari begira malda egonkortzeko proiektuaren exekuzioa

"GOBERNUAK ADOSTU DITU PARTIDAK; ORDUA DA HORIEK MARTXAN JARTZEKO"

ALBERTO ALONSO, PSE-EE

Proiektuak: partida esanguratsuenak



Zubieta kalea, zubitik aterata, martitzenean. JONE OLABARRIA

Zubieta-Masterreka Bi kaleak berriro urbanizatzeko lanak urtea bukatu aurretik hastea dago aurreikusita. 2021eko, 2022ko eta 2023ko aurrekontuak baldintzatuko ditu proiektuak; guztira, 2.350.000 euro inguru. 2022an, 1.025.000 euroko partida.



Erretiratu bi paseoa Agorrosin futbol zelaiko atletismo pistatik. J. OLABARRIA

Agorrosin Berria 2022an Udalak 600.000 euro bideratzea aurreikusten du. Partida horrekin eta aurretik gordeta zegoenarekin, belar naturala kendu eta artifiziala jartzeko lehen fasea abiatzeko ezinbestekoa den milioi bat eurora heltzea espero dute BKEkoek.



Sare elektrikoaz gain, euste-horma dago Boluko mendi magalean. J. IRIONDO

Boluko malda 2017ko urtarileko lur-jausi handian bizitako ezinegona sentitu zuten bizilagun batzuek abenduaren 10ean, lurra behera zetorrela ikusita. EAJren eskaera nagusietako bat izan da; 2022an, 200.000 euroko partida bat bideratuko da.



2022rako aurrekontuak eta Larramendiko plantaren proiektua izan ziren protagonista urteko azken bilkuran. JOKIN BEREZIARTUA

"beharrezko" dela "argi" izanda, Udal Gobernuak beharrezkoak diren akordioak bideratu eta proiektuak jasotako bigarren fasea exekutatzeko konpromisoa hartu du. Horretarako, beharrezko finantzaketa bermatzeko 200.000 euroko diru-izendapen gehigarria jasotzen da 2022ko aurrekontuan.

PSE-EE ere exekuzioen zain

Alderdi sozialistak 2019an eta 2020an lortutako akordioak exekutatzeko daudela gogorarazi zion Udal Gobernuari. "Aurten arrazoi oso sinple bategatik ez dugu nahi izan Udal Gobernuarekin negoziazioetan sartu: ikusten dugu aurreko bi urteetan lortu ditugun akordioek oraindik ere exekutatu gabe jarraitzen dutela. Horregatik, abstentzioa modu bat izan da Udal Gobernuari esateko par-

tidak badituela eta, beraz, ordua dela adostutako proiektuari martxan jartzeko", deritzo PSE-EEko bozeramaile Alberto Alonsok.

Akordatutako partida nagusiak

EH Bilduren eta EAJren arteko akordioaren bueltan honako proiektu hauek onartu dira, besteak beste: Martokoa kalearen urbanizazio-proiektuaren idazketa eta garapenerako 2021eko gerakinetik 250.000 euro bideratzea; herrigunean jolas toki estali berri bat egiteko lanketarako talde bat sortu eta exekuziorako gerakinetik 100.000 euro bideratzea; gizarte zerbitzuak hobetzeko "hainbat konpromiso", esaterako, 75.000 euro eguneko zentro arineko zerbitzura eta 25.000 euro karteraren garapenerako "hainbat ekintza" bideratzeko edota etxer etxeko

gaueko zerbitzuaren azterketa egiteko; Simon Arrieta plaza bizilagunen komunitateekin batera finantzatuta berriro urbanizatzeko proposamena lantzeko 15.000 euro –EAJk nahiko luke proiektua beranduenez 2023an exekutatzeko–; gazteek jasandako sexu-abusuen inguruan aho batez onartutako mozioan jasotako konpromisoei erantzun asmoz ekimenak martxan jartzeko 7.000 euroko partida eta lanketa hori egiteko talde propioa sortzea; eta hileta zibiletarako arautegia berritzeko prozesua martxan egonda, horretarako espazio propio egokiak identifikatu eta beharrezko egokitzapen azterketarako 10.000 euroko diru izendapena jasotzea eta proiekturako beharrezko egokitzapenentarako 80.000 euro gerakinetik bideratzeko konpromisoa.



Larramendiko plantaren aurkako elkarretaratzea. JOKIN BEREZIARTUA

Protestaren ostean, mozioa aurrera

Larramendiko planta ere izan zen protagonista osoko bilkuran, auzotarrek mozio bat aurkeztu zuten eta. Aurrera egin zuen mozioak, EH Bilduren aldeko botoarekin, EAJren kontrakoarekin eta alderdi sozialistaren abstentzioarekin. Mozioa udalbatzaren aurrean defendatu aurretik, auzotarrek deituta elkarretaratzea egin zuten San Martin plazan. *Errauskailua. Ez hemen, ez inon eta Osasuna interes ekonomiko eta politikoen gainetik* lelopean, protestan irten ziren herritar batzuk.

Idazkariak mozioa irakurri ostean, talde politiko bakoitzak bere botoa azaldu zuen. EH Bilduk auzotarrek mozioan egindako hiru eskaeretak baten moldaketa bat egitea eskatu zuen, legeak hala behartuz gero baimenak eman beharrean daudela azaltzeko. EAJk kontra bozkatu zuen, eta honela azaldu zuen botoa Irune Galarragak: "Ulertzen dugu zuen kezka proiektuaren inguruan. Proiektua berritzailea den heinean, ulertzekoa da zalantza asko planteatzen direla, baina ingurumeneko gaur egungo arautegi zorrotzek bermeak ematen dituzte osasunaren zein ingurumenaren zaintza aldetik ere". Valogreen enpresa Larramendin kokatzeko "lehen baimena" EH Bilduk eman zuela gogora ekartzeaz gain, Jaurilaritzari ere zuzendu zitzaion: "Indarrean den araudia zorrotzasunez aplikatzea eskatzen diogu; ondorioz, planta berriak ez ditu eragin kaltegarriak sortuko". PSE-EE abstenitu egin zen, mozioak "testuinguru zabalagoa" behar duela iritzita, eta argi dute legeak ezartzen dituen ingurumen eta osasun berme guztiak zorrotz bete behar direla.

Mozioak aurrera egin arren "kezka handiz" jarraitzen dute auzotarrek. "Bozketa ikusita dugunez, badirudi EAJri eta PSE-EEri ez diela axola bergararren osasuna. EH Bildu posizionatu da, baina busti ez da inor bustitzen, eta horrek tristura ematen du. Oso kezkatuta gaude; *Tapiaren legea* sortu eta dagoeneko aldatzekotan ari dira enpresa pribatuen alde egiteko ere. Ez dugu etsiko", esan zuen bilkuraren amaieran San Juango bizilagun Paul Aznalek.



MIGUEL ALTUNA
Lanbide Heziketa

Gabon zoriontsuak
eta urte berri on!

943 89 92 70 - 943 89 92 73
info@maltuna.eus - www.maltuna.eus



Urte gogorra joan da baina
hau ere badoa, tira
nola tantoak, hala urteak
kostata pilatzen dira.
Batzutan pasa, bestetan falta
txokora edo erdira,
nolanahi ere zorteko gaude
zenbakiari begira.
Hogeitabira iristen denak
irabazten du partida,
beraz garaile pasa gaitzen
urte zaharretik berrira.





Mizpirualdeko lau egoiliar eta psikologoa San Martin plazan, *Bizikletan adinik ez* ekimeneko boluntarioekin. JONE OLABARRIA

Mizpirualdeko errutina erabat apurtzeko buelta

Udalaren eskutik eta Real Sociedad fundazioari esker, 'Bizikletan adinik ez' ekimeneko boluntarioek Mizpirualdeko lau egoiliar hartu eta triziklo berezietan irteera egin zuten martitzenean herrian zehar; txangoan irten ziren adinekoak "oso gustura" egon ziren

Jokin Bereziartua BERGARA

Udalari eta Real Sociedad fundazioari esker, Bergaran izan ziren martitzenean *Bizikletan adinik ez* (BAE) ekimeneko boluntarioak. Mizpirualden jaso zituzten lau egoiliar trizikloetan, eta egoitzako psikologoarekin batera herrian gora eta behera ibili ziren. Mizpirualdetik abiatu eta San Martin plazan egin zuten lehen geldialdia egoiliarrek. Argazkia atera ostean, eta maskarak eta ez hozteko mantak jarrita, betiere, buelta ederra eman zuten herrian zehar.

Oroitzapenak berpizteko

Real Sociedad fundazioko proiektuen arduraduna da Iñigo Diaz de Cerio jokalaria ohia. De Cerio Bergaran izan zen martitzenean, eta, azaldu zuenez, hasieratik argi izan dute proiektua oso onuragarria dela adinekoendako: "Egoitzan dauden pertsonentzako aukera ezberdin bat da bertatik irten eta horrelako ekimenekin betiko errutinak

aldatzeko. Askori txikitako oroitzenak berpizten zaizkie berriz ere kale edo leku jakin batetik pasatzerakoan".

Ongizate zinegotzi Zihortza Marzanek ere bertatik bertara jarraitu zuen ekimena, eta belaunaldi askotariko herriarren topaleku izatea ere bilatzen duela gogorarazi zuen: "Erresistentzietako egoiliarrek bakar-dade puntu bat sentitu ohi dutela ikusita ekintza polita izan daitekeela uste dugu. Horrez gain, belaunaldi ezberdinen arteko transmisiorako egoki ikusi genuen, eta, horregatik, gaurko kasuan, Mariaren Lagundiko ikasle batzuk izan dira gurekin. Ikasleek ikasturte osoan proiektuak garatzen dituzte adinekoekin".

DONOSTIAN SORTU ARREN, BOLUNTARIOEK USTE DUTE HERRIETAN ERE ARRAKASTA IZAN DEZAKEELA

kin, eta, dagoeneko elkar eza gutzen dutela aprobetxatuta, ikasleak ere hemen egotea nahi izan dugu".

Egoiliarrek, "oso gustura"

Ekimenaren protagonistak, baina, Mizpirualdeko egoiliarrek izan ziren. "Pozik" agertu ziren esperientzia berriarekin, egoitzatik irten eta goiz-pasa ezberdina egiteko aukera izan zutelako. Hala zioten, esaterako, Tomasa Martinek eta Marina Estevezek: "Oso gustura ibili gara herrian gora eta behera; Mizpirualden dauden guztiei gomendatzen diet, gure moduan, bizikleta hauetan muntatzera". Boluntario lanetan aritu zen Patxi Alberdik zioen "berezia" izan zela Bergarara etorri izana: "Orain arte Donostian ibili izan gara, baina uste dugu ekimena herrietara ekartzeko modukoa dela; inork herrietan lekukoa hartuko balu prest egongo ginateke laguntzeko, ekimen ederra da-eta egoiliarrendako".

GORA ETA BEHERA



GOIENA

Obrako hondakinak, "modu desegokian"

Iturbe baserri ondoko edukiontzien gunean "norbaitek" etxeko obra-hondakinak "modu desegokian" utzi dituela salatu du auzotar batek: "Hiri hondakinak botatzea zailtzen die besteei, gainera".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

Gure-Artera Sare: euskal presoan alde, askotariko ekintzak

Gabonetarako egitaraua antolatu du euskal presoan aldeko Gure Artera-Sare ekimenak. "Salbuespen legedia amaitu eta etxerako bidea gauzatzea" exijitu dute, herriko eragileen arteko elkarlana bultzatuz. Hona-ko hauek izango dira ekintzak: abenduaren 24an, elkarretaratzea egingo dute plazan (13:00), eta bospasei abesti kantatuko dituz-

te; Sarek abenduaren 26rako Martutenera antolatutako martxarekin bat egin dute; abenduaren 30erako, bertso saioa antolatu dute Seminarixoan (19:00) Kopla Barik bertso eskolarekin batera, eta Amets Arza-llus, Sustrai Colina, Uxue Alberdi eta Nerea Ibartzabal gonbidatu dituzte; abenduaren 31rako, "kale mobilizazio handia" antolatu dute; eta urtarrilaren 8ko Bilboko manifestaziorako autobusen txartelak "ohiko lekuetan" eskuratu ahaliko dira.

OHARRAK

'COVID ziurtagiririk ez' elkarretaratzea

Protesta egingo dute gaur, hilak 23, San Martin plazan (19:00).

Gabonak: Boluko balkoi apainduen lehiaketa

Arrakasta handia izan du, 47 etxebizitzak hartu dute-eta parte. Bihar, abenduak 24, banatuko dituzte lau sariak, 13:00etan.

Bedelkar: 'txu-txu trena' bueltan dator

Abenduaren 18an trenak matxura izan ostean, abenduaren 26an Bergaran egongo da, 11:30etik 14:30era eta 16:00etatik 20:00etara.

Odol Emaileen Elkarte: 2022ko ateratzeak

Urtarrilaren 12an izango da lehen ateratzea. Hilero bi eguaztenetan egongo dira, Oxirondon, 16:30etik 20:30era.

Erakusleho lehiaketako irabazleak

Hamar komertziok hartu dute parte. Honako hauek izan dira irabazleak: lehen saria, Amua jantzi denda -ziurtagiria eta 300 euro bonutan-; bigarren saria, Amparo ile-apaindegia -ziurtagiria eta 250 euro bonutan-; hirugarren saria, Izeder eskulanak -ziurtagiria eta 200 euro bonutan-; herriarrek Amua jantzi dendari eman diote boto gehien -ziurtagiria eta 50 euro bonutan-.



Martitzen goizean egin zuten txapelketen aurkezpena klubeko, fundazioko eta Bedelkarreko ordezkariak Agorrosinen. J.I.

Errege bezperako futbol txapelketak, solidarioak

Urtarrilaren 5ean egingo dituzte gizonezkoen gazte mailako Gabonetako 31. txapelketa eta emakumezkoen Gabonetako I. txapelketa. Bi hitzorduak goizez izango dira, eta lortutako dirua Fundame fundazioa laguntzera bideratuko dute

Jone Olabarria BERGARA

Mutilen Gabonetako gazte mailako ohiko txapelketaz gain, emakumeena ere izango da aurtentzen, lehen aldiz. Biek izango dituzte helburu solidarioak, eta haurtzaroko muskulu-atrofia espinal deritzon gaitzarekin lotutako Fundame fundazioari laguntzera bideratuko dute lortutako dirua.

"Ilusio bereziarekin"

COVID-19ak eraginda iazko edizioa bertan behera utzi behar izan zuten, eta, ondorioz, aurtengora begira "ilusio bereziarekin" lanean ari direla azaldu du Bergara Kirol Elkarteko presidente Iosu Elorzak: "Gure kluba oso gertutik ezagutzen duten eta bertako parte diren bi kasu ditugu Fundame elkar-

tean, eta eurekin elkarlanean zerbait berezia egin nahi izan dugu".

Era berean, herriko merkataria eta ostalariak proiektuaren parte egiteko aukera baliatu, eta Bedelkarrek ere hartu du parte txapelketen antolaketan. Iosu Elorzak aitortu duenez, "herria eta kirola gai solidario baten bueltan

batzea" izan da helburu nagusietakoa aurtengo edizioan.

Herrian, bi kasu

Bergaran bi haurrek sufritzen dituzte gaitzaren ondorioak gaur egun. Gaixotasuna pairatzen dutenek ezin dituzte muskuluak ohiko moduan erabili, batez ere, arnasterakoan kalteak eraginda. Ume horietako baten ama, eta Fundame elkartearen ordezkaria EAEn, Ana Pineda da. Laguntza oro beharrezkoa dela azaldu du: "Fundazioak ikerketara bideratzen ditu lortutako baliabideak, eta, era berean, halako ekimenei esker gaixotasunari ikusgarritasuna ematen diogu".

Eskertza mezua

Aldez aurretik, oso eskertuta agertu dira txapelketa hauek ikustera joango diren herritar guztiekin, baita antolaketan lanetan ari direnekin ere: "Txapelketak ikustera etorriko diren guztiek badakite helburu solidario batekin antolatua izan dela. Oso eskertuta gaude, izugarria da jendeak ematen duen erantzuna halakoetan".

Bedelkarren laguntzarekin

Bi txapelketetarako sarrerak bost euro balioko du, eta haiekin zein Bedelkarreko herriko denek emandako produktuekin osatuko duen saskiaren zozketarekin lortuko da dirua haurtzaroko muskulu-atrofia espinala dutenen Fundame fundazioarentzat.

Bedelkarreko lehendakari Marian Ortizek azaldu duenez, Ana Pineda Fundameren izenean laguntza eske joan zitzaion lehen momentutik argi izan zuten ekimena babestu beharrezkoa zela: "Gure laguntza eske etorri zirenean, erabaki genuen Bedel-

karreko bazkide guztien artean saski bat egitea, bakoitzaren produktuak barne direla, eta horrela guk ere laguntza txiki bat ematea".

Maila handiko hitzorduak

Kirol arloari dagokionez, mutilen gazte mailako 31. txapelketa Alfredo Najeraren omenezkoa izango da. Hiruko eran antolatuko dituzten bi txapelketetan "maila handiko" taldeak lehiatuko direla zehaztu du Iosu Elorza Bergara Kirol Elkarteko presidenteak. Gizonezkoen kasuan, Bergara, Real eta Alaves ariko dira lehian Agorrosinen: "Bai Real bai Alaves gazteen goi mailako estrukturan dabilta. Halako hitzorduak politak izaten dira herriko gazteentzat, euren aurka jokatzeko aukera izaten dute gure jokalariek".

Elorrio eta Real aurkari

Emakumeen txapelketan, berriz, Bergara, Real eta Elorrio izango dira lehiakideak, Ipintzan: "Elorriok Euskal Ligan jokatzeko du, eta Real ere kategoria ezberdinetakoa neskekin etorriko da txapelketara. Maila handia aurreikusten dugu".

Hiruko erako bi txapelketak Errege Egun bezperan, urtarrilaren 5ean, izango dira, goizez; 10:30ean, 11:30ean eta 12:30ean izango dira norgehiagokak, eta bi txapelketen sari banaketa 13:30ean izango da, Agorrosinen. Antolakuntzatik bergarar guztiak animatu dituzte gerturatzen.

"KLUBA GERTUTIK EZAGUTU ETA BERTAKO PARTE DIREN BI KIDE DITUGU FUNDAME FUNDAZIOAN EGUN"

Domekan egingo dute aurtengo Eskubalo Eguna Labegaraletan

Hitzordua berreskuratu, taldeko gurasoek, gaztetxoek eta jokalariek ohiek hartuko dute parte abenduaren 26an

J.O. BERGARA

COVID-19ak hala eraginda, bertan behera geratu zen iazko Eskubalo Eguna. Aurtentzen, baina, dagoeneko ohiko bihurtu den hitzordua berreskuratu eta domekan elkartuko dira Labega-

raietan, Bergarako Eskubalo Egunaren bueltan.

Hainbat neurketa prestatu ditu herriko eskubalo taldeak, eta egun osoko egitaraua antolatu. Kirolarien eta gurasoen arteko partidua jokatu dituzte, bai-

ta beteranoen eta gaur egungo jokalarien artekoak.

10:30ean hasiko dira partidua, infantil mailako nesken eta gurasoen arteko lehiarekin; 11:30ean, berriz, kadete mailako neskak eta gurasoak arituko dira. Goizeko txanda amaitzeko, luntxa egingo dute, 13:00etan.

Beteranoek arratsaldean izango dute berriz ere Labegaraletan jokatzeko aukera: 15:30ean, jokalariek ohien partidua egingo dituzte, senior taldeen aurka, neska zein mutil.

Kukubaso elkarteak bazkidetza kanpaina jarri du martxan

Abenduaren 23an eta 30ean 17:30etik 20:00etara izango dira Irala kalean Kukubaso elkarteak kideak, bazkide berriak lortzeko jarriko duten mahaian. Bazkide berriei eko-motxilak oparitu dizkiete, eta erronka ere bota diete: "Baietz gutako bakoitzak datozen egunetan bazkide berri bat lortu! Senide, lagun, lankideak... tentatu, ani-

matu eta konbentzitu". Lan horretan laguntzeko 30 euroren truke Kukubasolagun Txartela eskuratzeko aukera ere bada goela azaldu dute.

Bazkideen ekarpena, laguntza ekonomikoa eta bestelako lanetarako parte hartzea "ezinbestekoak" direla gogorarazi dute: "Guztiona izatea nahiko gure proiektu hau ezin izango gure martxan jarri zuenagatik izan ez balitz. Hasiera-hasieratik eskainitako babesagatik, eskerrik asko denei".



Antzuolako udal ordezkarien harrera jaso duten lau etorkinak. MIREIA BIKUÑA

Herriko komunitatea zabalduz eta indartuz

Inklusioa sustatzeko helburuarekin, Harrera Plana berri du Herri Lagunkoiak talde eragileak. Horren baitan, Antzuolako udal ordezkariak azken bi urteetan herrira etorri diren etorkinei harrera egin diete; eta guztien jatorria mapa batean jaso dute

Abenduaren 18an, zapatuan, Migratzaileen Nazioarteko Eguna ospatu zen. Eta Antzuolako Udal Gobernuako ordezkariak herrira azken bi urteetan etorritako etorkinei harrera egin zieten osoko bilkura aretoan.

Udalak 2015ean jarri zuen martxan harrera protokoloa, baina orain, Herri Lagunkoia ekimenaren baitan, protokolo hori berri egin dute, inklusioa sustatzeko asmoz.

Herri-harrera

Udal-harrera protokoloa izatetik herri-harrera protokolorako garapena izan duela harrera planak kontatu du Beñardo Kortabarria alkateak: "2015ean onartu genuen harrera protokoloa, eta gauzak asko aldatu dira orduz geroztik. Hala, Antzuolako gaur egungo errealitatera egokitzea erabaki genuen. Sasoi hartan, Pakistandik asko etorri ziren, eta berezko komunitatea sortu zen. Gaur egun, ordea, ez dago mugimendu hori, eta orain,

egokitu egin dugu plana eta herrira zabaldu dugu".

Komunitateko kide sentiarazteko ekitaldia izan zen zapatukoa; 58 etorkin inguruk jaso zuten ekitaldian parte hartzeko gonbidapena, baina, askotariko arrazoiak medio, lau elkartu ziren: Jamila Raghoubn marokoarra, Sabina Collrani nikaraguarra, Gabriela Vinaccio argentinarra eta Claudia Baez boliviarra. Laurek aurkeztu zuten euren burua. Nondik etorritakoak diren, zenbat denbora daramaten Antzuolan bizi izaten eta euren esperientzia kontatu zuten. Herrialde ezberdinetakoak izanda ere, argi dute oso gustura bizi direla Antzuolan. Izan ere, helburua denon artean he-

HARRERA PROTOKOLO BERRITUAK URTEAN BITAN ETORKINEI HARRERA EGITEA JASO DU

rria egitea dela nabarmendu du alkateak: "Honen helburua da datorren edozeini esatea hau herri txiki bat dela, eta herria denon artean egiten dugula; denok berdinak garela, alegia. Nolabait, eurak gu ezagutzea da protokolo honen asmoa, eta guk ere eurak ezagutzea eta euren errealitatea ere gertutik ezagutzea ondoren gizarteratzeko eta jakinarazteko".

Gaur egun, nazionalitate askotako herritarrek batzen ditu Antzuolak –Errumania, Maroko, Hego Amerika...–, eta guztien jatorria mapa batean jaso zuten, denon bistara, gizarteratzeko.

Urtean bitan

Harrera protokolo berrituan jasota geratu da urtean bitan egitea etorkinendako harrera ekitaldia. Hala, hurrengoa 2022ko ekainean egingo da, San Juan bezperan; eta bigarrena, aldiz, Gabon aurreko zapatuan, inklusioa denon artean sustatzeko asmoz.



Mari Domingi eta Olentzero, Herriko Plazan. IKER AIZKORBE

Olentzero eta Mari Domingi egoerara egokituta etorriko dira

Pandemiako datuak ez dira batere onak, eta, horregatik, ekitaldi xumea antolatu du Kultura Sailak Gabonetarako

M.A. ANTZUOLA

Pausokak antolatuta, kalejiran irtengo dira bihar, 11:00etan, Errekaldetik. 18:30ean, berriz, San Josetik etorriko dira Olentzero eta Mari Domingi eta udal-letxe bakoira igoko dira. Osasun egoerara egokituko da ekitaldia, eta, pilaketak ekiditeko asmoz, ez da Herriko Plazako ekitaldirik egingo aurtan. Hala, herritarrendako mezua balkoitik emango dute.

Urtarrilerako haurrendako puzgarriak antolatu nahi ditu Udalak, baina dena osasun egoeraren menpe dagoela esan dute.

Sareko ekintzak

Gabonen bueltan, Antzuolako Sarek hainbat ekintza antolatu ditu: bihar, hilak 24, Zurrategin, 12:30ean, salda eta txorizoa banatuko dute; eta 19:00etan, elkarretaratzea izango da. Urteko azkena 31n egingo dute. Bi ekitaldietarako zerbait berezia prestatzeko asmoa dute –tokiko produktuen saskien zozketa hilaren 26an–.

Urtarrilaren 8ko Bilboko manifestaziora joateko dei ere egin du Sarek, eta autobusez joateko izena eman daiteke Aitz Garbi tabernan –azken eguna urtarri-laren 5a da–.



ARROLA

Plaka berria Aketegin

Arrola Elkarrekin 1975eko abenduaren 14an igo zuen buzoia garai hartako Aitzuri gainera. Zapatuan, berriro igo ziren plaka berria jartzera. "46 urte pasa eta gero, ikerketek dioskute Aitzuri ez, baizik eta Aketegi omen dela gain hau (1.551 metro), eta betidanik ezagutu dugun Aketegi gaina, berriz, Aketegi erpina da orain (1.548 metro)", adierazi dute.

San Roke kaleko lanak egitasmo nagusi moduan

Elgetako Udalak 1.835.977,48 euroko aurrekontua izango du 2022an. EH Bilduko ordezkarien aldeko botoekin eta EAJkoen kontrakoekin onartu da. Inbertsioetan, San Roke kaleko lanak eta plaka fotovoltaikoen egitasmoa nabarmentzen dira

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA
Aurreko udal aurrekontuarekin alderatuta 140.000 euroko gehikuntza du 2022koak; %8,47ko hazkundera. Inbertsioen atalean diru-lerrorik handiena San Roke kaleko irisgarritasun lanetarako da. Horrekin batera nabarmentzen dira frontoiko teiltatuko plaka fotovoltaikoen proiektua, herriko lursailak digitalizatzeko egitasmoa zein skate parke berria eta San Roke ermitako lanak. Iraitx Lazkano alkateak azpimarratu du igoera nabarmena izan dela, baita ere, etxez etxeko zerbitzuan. "Partida hori 28.000 eurotik 52.000 eurora igo da. Zerbitzua gero eta gehiago eskatzen da, eta esleipen berria egindakoan ordurka jarritako prezioa %25 igo da".

Oposizioak, kontrako botoa
EAJko ordezkariak ez dute aurrekontua babestu. "Batez ere, ez dugulako etorkizunerako planteamendurik ikusten inolako norabidetan", azaldu du Aintzane Oiarbidek. Jeltzaleak oso kritiko agertu dira plaka fotovoltaikoen proiektuarekin. "Egitasmoa bat dator gure helburuekin, baina akats izugarriak daude txosten horretan, eta inpresioa dugu korrika eta presa-ka aurkeztu dela (...) Esaterako,



Elgetako udalbatza udal aurrekontua onartzeko osoko bilkuran, martitzenean. L.Z.L.

hogei kilowatt ez direla inolaz ere 120 metro karratutan sartzen, eta zailtasun handiak ditugu Elgetan 1.289 eguzki erradiazio ordu egotearekin. Gainera, ez da gure lankidetzarik eskatu. Batzordeetan ez da gurekin ezer landu nahi izan. Zergatik?". San Roke kaleko konponketa lanen proiektuarekin ere kezka dute: "Ikusten dugu oso erraz jartzen edo kentzen dela aurrekontutik, eta horrek ez digu batere konfiantzarik ematen nahiz eta gu proiektu hori egitearen alde egon". Hiri-altzarien mantentzean

gehiago egin behar dela azpimarratu du oposizioak.
Plaka fotovoltaikoen txostena hasierako estimazio batean oinarritzen dela erantzun zuen Lazkanok. Horrekin batera, esan zuen herriko baranda gehienak margotu direla, eta aurten 11.000 euro inbertitu direla zeregin horretan. Onartu zuen oraindik ere badela zer eginga eta horregatik onartu dela partida handiagoa 2022rako. Zehaztu zuen, bestetik, San Roke kaleko lanak egiteko 100.000 euroko mailegua eskatuko duela Udalak.



Elgeta protagonista 'Harira' saioan

Elgeta izan da protagonista aste honetan Goiena telebistako *Harira* saioan. Eneko Azkaratek gidatutako ordubeteko saioan askotariko gaiak izan zituzten hizpide Iraitx Lazkano alkateak eta oposizioko bozeramaile Aintzane Oiarbidek. Udal aurrekontuaz aritu ziren, baita baita ere, esaterako, pandemiaren bilakaeraz. "Egoera konplikatu da. Orain arte pandemiaren zehar eduki dugun intzidentzia-tasa handiena bikoiztu egin dugu azken aste honetan", esan zuen Lazkanok.
Herritarren iritziek, balorazioek eta galderek ere lekua izan dute saioan. Ikusgai dago, osorik, *Goiena.eus* atarian.



Saioa osorik ikusteko, eskaneatu QR kode hau poltsikoko telefonoarekin.

2022ko inbertsio esanguratsuak

San Roke kaleko irisgarritasuna.	100.000 €
Eskolako eta antzokiko galdarak.	32.000 €
Plaka fotovoltaikoen instalazioa.	30.000 €
Lur sailak digitalizatzeko egitasmoa.	30.000 €
Skate parke berria.	15.000 €
Baserritarren batzordea.	15.000 €
San Roke ermitako teiltatua.	15.000 €
Torre bidea egokitzeko lanak.	10.000 €
Haur parkeetako jolas berriak.	10.000 €
San Rokeko parkea eta anfibioentzako ur putzua.	8.000 €
Irisgarritasuna.	3.000 €
Kaleko altzariak.	2.000 €

Olentzero eta Mari Domingi gaur datoz Elgetako plazara

Salbador kalean egingo diete ongietorria, 18:30ean, eta plazan jasoko dituzte herriko neska-mutikoen gutunak

L.Z.L. ELGETA
Olentzero eta Mari Domingi Elgetan izango dira aurten ere. Gaur dira Intxortatik jaistekoak, eta Salbadorren elkartuko dira herriko neska-mutikoekin. Gutunak plazan jasoko dituzte.

Gabonetako haur parkea ere iragarri dute udal arduradunek. Asmoa da urtarrilaren 3an eta 4an egitea, arratsaldean. Dena den, pandemiaren bilakaerari begira daude. "Ikusiko dugu, azkenean, zer eta nola antolatzen

dugun", azaldu du Ane Bilbaok, Kultura zinegotziak.

Pilota txapelketak
Pilota eta pala txapelketetako finalak Urtezahar egunean jotatuko dira. COVID ziurtagiria beharko da; dagoeneko beharrezkoa da kirol instalazioetan sartzeko. Umeen Gabonetako pilota txapelketa, berriz, apirilera atzeratu dute. "Hala erabaki dugu Udalak, Herri Eskolak eta Guraso elkarteak", azaldu du Ibai Etxaniz zinegotziak.



Olentzero eta Mari Domingi Elgetan, iaz. E.G.

la 19 milioi euro 2022rako; horietatik 2,6 inbertsioak egiteko

Abenduaren 16an egindako ohiko osoko bilkuran onartu zuen udalbatzak datorren urteko aurrekontua: 18.830.772 euro. Txostenean jaso eta egiteko asmoa duten proiektuak aztertzen eta lehentasunak finkatzen hasiko dira orain

Oihana Elortza OÑATI

Azkena baino %13 handiagoa izango da Oñatik datorren urtean izango duen aurrekontua eta horrek ondasun eta zerbitzu erosketak handitzeko aukera emango du, alkatearen esanetan, eta "orain arteko zerbitzuak mantendu eta hobetzeko helburua" dute. 18,8 milioikoa da abenduko osoko bilkuran onartu duten 2022ko aurrekontua. EH Bilduren aldeko botoekin onartu zuten. EAJk kontrako botoa eman zuen; agintaldi honetako aurreko bietan abstenitu egin zen.



Abenduaren 16an egindako osoko bilkura. O.E.

Iritzi ezberdinak

Oposizioaren botoa aurkakoa izan arren, Udal Gobernuak "pozik" dago, egindako zuzenketetan ez dutelako euren proposamenik "sobran" ikusi, eta "orekatua" dela uste du. EAJk hemeretzi emendakin aurkeztu ditu eta horietako lau jasota gelditu dira aurrekontuetan, baina Udal Gobernuak aurkeztutako proposamena "oso itxia" izan dela adierazi zuten ezezko botoa arrazoitzean, eta 2021eko soberakina eurek egindako beste proposamenetan erabiltzea adostea eskatuta, Udal Gobernuaren erantzuna ezezkoa izan zela esan zuen Ainhoa Galdosek, jeltzaleen udal bozeramaileak, "lehentasuna maileguak duelako". EH Bilduko Xabier Igartuaren erantzuna izan zen normala dela bakoitzak bere lehentasunak izatea eta eskatu zien jeltzaleei proposamenak gehiago lantzeko eta "medioetan publiko egin aurretik, kontrastatzeko".

Inbertsioak

Foru Funtzaren igoerak, aurtengoa baino ia %15 handiagoa, eta udal enpresen dibidenduenak,

%32ko igoera, eragin zuzena izan dute 2022ko sarreretan. Ia 19 milioiko aurrekontua izango du, horrela, Oñatik 2022an, eta 2,6 milioi inbertsioetarako izango dira, azken aurrekontuetan baino bi aldiz gehiago. Honek guztiak 2,1 milioi euroko aurrezki arrunt positiboa eragingo duela argitu zuen Izaro Elorza alkateak, aurrekontuen irakurketa orokorra egiterakoan.

Barne antolaketa hartzen du aurrekontuaren zatirik handiena eta kirolak igoera handiena. Departamentu guztietan jaso dituzte, baina, partidak proiektu jakinak egiteko. Kulturen, esaterako, indartu egin dute herriko kultura taldeen dirulaguntza eta sormena -86.000 euro-, eta mila gutxiago utzi dituzte Santa Ana antzokian egokitzen lanak egiteko. Euskararen, herriguneko zenbait etxe jatorrizko izenez identifikatu eta proiektu bat landuko dute izen horiek bistaratzeko. Partaidetzako aurrekontuen prozesu berria ere egiteko asmoa dute. Baita wifia jartzeko ere Eltzian, orain arte ez zegoen 0 eta 3. so-

lauruetan. Urrutxun korrika egiteko pista baten proiektua abian jarriko dute, merkataritza biziberritzeko planek jarraipena izango dute, esperientzia gela martxan jartzeko asmoa dute, gazteendako irteera gehiago izango dira eta eguneko zentro arinarendako ere gorde dute dirua. Auzoetako inbertsio poltsa, bestalde, %9 handiagoa izango da: 164.000 euro.

Inbertsio esanguratsuenetako bi



Azkoagain futbol zelaia. O.E.

Azkoagain futbol zelaiko belar artifiziala aldatu eta dagozkion lanak egiteko 360.000 euroko partida jaso dute. Ekipamenduen kokalekuak aukeratzeko azterketa egiteko beste 15.000 euro. EAJren emendakina da bigarren hori.



Olakua auzoa. O.E.

Irisgarritasun lanek jarraipena izango dute Olakua eta San Lorentzo auzoetan. 600.000 euro gorde dira bi auzoetako lan horiek egiteko. Olakua auzoan, gainera, errekaaren arriskua ere aztertuko dute.

Departamentu bakoitzaren aurrekontua

Sailaren izena	2021	2022	ALDEA
Komunikazioa eta parte-hartzea	512.020,00	513.450,00	%0.28
Gizarte zerbitzuak	1.698.884,90	1.790.463,61	%5.39
Kirola	1.090.425,17	1.698.751,53	%55.79
Kultura	1.225.401,62	1.337.529,29	%9.15
Barne antolaketa	6.719.831,55	7.035.297,69	%4.69
Sozioekonomia	558.033,89	562.896,97	%0.87
Lurralde antolaketa	3.692.296,90	4.658.881,53	%26.18
Aisialdi hezitzailea	1.105.489,00	1.233.501,04	%11.58
GUZTIRA	16.602.383,03€	18.830.771,66€	%13.42

ITURRIA: OÑATIKO UDALA

Birgaituta beteko ditu 30 urteak Natur Eskolak

2018an hasitako lanak bukatuta, astean inauguratu dute Natur Eskola, herriko hainbat eragileri eta herritarri egindako lanak erakutsita. Ingurumenaren proiektu pedagogikoari lotuta jarraituko dute elementu naturalak erabilia birgaitutako etxean



Igartua, Iraeta eta Zubizarreta, martitzeneko inaugurazioan. MAIDER ARREGI

Oihana Elortza OÑATI

Ikasturte berriarekin batera ohiko tokian hasi zen Natur Eskola zerbitzua eskaintzen. Lanak erabat amaituta, aste honetan egin dute eraikin berriaren inaugurazio ofiziala.

Bioeraikuntzaren printzipioekin

Oñatirendako proiektu estrategikoa da Natur Eskola Udalarendako, ingurumenaren proiektu pedagogikoarekin lotuta dago eta "ezinbestekoa" da "herri iraunkorra" izateko. "Ingurumenari errespetua izango dion herria izan gura du Oñatik eta horretan lagunduko digu Natur Eskolak, ingurumen hezkuntza bultzatzen eta zabaltzen", adierazi du Xabier Igartua alkateordeak.

Eraikina lehengoa da, baina eraberritu egin dute, bioeraikuntzaren printzipioak erabiliz. "Isolamendu termikoak, adibidez, elementu naturalekin lortu dira; fatxada nagusian lasto-fardoak

erabili dira eta zoruan kortxoak. Komunak lehorrak dira; gorotzak zizareek jango dituzte eta pixa, berriz, garbi helduko da erre-kara, eraikin aurreko putzuko landareekin fitoarazketa prozesua bete ostean. Berokuntza sistema, bestalde, energia berri-erregeneratzaile oinarritzen da: aerotermiarekin eta biomasarekin berotuko da eraikina", azaldu du Ingurumen zinegotziak, Asier Iraetak. Harkaitzegi handi bat ere egin dute, tokiko biodibertsitatearen eta natura aberastasunaren erakusle.

Ikasleekin batera

1992ko ikasturtean zabaldu zituen ateak Natur Eskolak lehendabizikoz; 30 urte beteko ditu hurrengo urtean. Birgaitze lan horiek 2018an hasi zituzten, eta aurtun amaitu, pandemia tarteko. Aurrerantzean ere ikasleekin lanean jarraitzeko asmoa dute, ingurumenaren proiektu pedagogikoari lotuta.



NIRE USTEZ

ESTEBAN IRUSTA

Eguberriak eta Olentzero

Hemen dira mundu osoan milioika jende ospatzen dituzten jaiak: Eguberriak. Nazareteko Jesusen jaiotza. Kristautasunaren figura zentrala, eta historiako garrantzitsuenak. Festa hauek badute beste esangura garrantzitsu eta antzinatasun zaharrago bat, adituen esanetan *eguberri* hitzak berak adierazten duena: *eguzki berri*. Garai honetan, eguzkia indartzea, egunak luzatzea, festa izatera bihurtu zen, geroago, kristau tradizioak Kristoren jaiotzaz lotuko zuena. Olentzeroren tradizioari buruz interpretazio asko daude. Baina, duela 50 bat urte, gizatalde batzuek eman ziotenak zerikusi gutxi dauka aurreko guztiekin, ez eta Lesaka eta inguruko herrietan bakarrik ezagutzen zen Olentzero triponzi eta zurruteroarekin. Badirudi Olentzero honek lehiatu eta ordezkatu nahi dituela Papa Noel, Santa Claus edo Errege Magoak, tradizioetik eta berari eskainitako estrofak edo ahapaldiak azaltzen dutenetik urrunduz. Eta tradizioetik gehiago urruntzen da Mari Domingi gehitu zaionean. Lesakarrak eta han bizi ginenok ez genuen uste honelako aldaketarik ezagutuko genuenik.

LORTU ZURE SARIA

TXANDAKO DENDETAN EROSITA, ERAMAN

3.700

EURO SARITAN

20€, 50€, 100€, 200€ eta 500€-ko bonotan

txanda

52 erorketa txarteletan

Abenduaren 9tik-28ra

#NiTokikozale

www.txanda.eus

Mantendu egin dute Gabonetako udal agenda

Olentzerok, Mari Domingik eta Errege Magoek ez dute kalejirarik egingo, baina bai harrera, eta haur parkea bertan behera gelditu da. Horiek dira salbuespenak. Gainerako ekitaldietan unean uneko neurriak eta legeak bete beharko dira

Oihana Elortza OÑATI

Antzoki edo areto funtzionamendua –Zubikoa pilotalekua, adibidez– ematen zaien guneeetan antolatutako ekitaldi guztiak mantendu egiten dira, baina unean uneko neurriak eta legeak bete beharko dira. Horixe jakinarazi du Udaleko Kultura Departamentuak Gabon egunetarako antolatuta dagoen egitarauari begira. Badaude bi salbuespen: kiroldegian egitekoa zen haur parkea bertan behera gelditu da, "kontaktu askoko edo interakzio handiko ekintza" moduan ikusten duelako Udalak. Olentzerok eta Mari Domingik ere ez dute kalejirarik egingo,



Iker Martinez musikari oñatiarra. GOIENA

udaletxeko balkoitik agurtuko dituzte herritarrek.

Kalejirarik ez, harrerak bai

Eguerdian, 12:30ean, helduko dira Olentzero eta Mari Domingi udaletxera eta hango balkoiara aterako dira herritarrek agurtzera. Herriko plazaren azalera bere osotasunean erabiltzeko eskatu gura die Udalak joango diren herritarrei, "jende pilaketak ekiditeko". Udaletxeko agurra amaitu ondoren, Olentzerok, auzoz auzo, gurdian herriko auzoetara egingo du bisita, "askotariko arrazoiengatik etxeetan dauden haurrak agurtzeko". Errege Magoekin ere

gauza bera gertatuko da. Parrokiak antolatuko du aurten ekitaldi hori, eta ez dela desfilerik egongo aurreratu dute: parrokia barruan izango dira hiru Erregeak, eguerdian, umeen gutunak jasotzen. Ume bakoitzak egoera onean dagoen jostailu bat eramateko dei ere egin dute, Caritasen bitartez beharra duten Gipuzkoako umeen artean banatzeko.

Emanaldiak, aurrera

Udalak prestatu duen Gabon egitarauaren barruko gainerako emanaldiak mantendu egiten dira. Horien artean: domekan, Olaitturri elkartearen *Lope Agirreren estatua* antzezlanak Santa Anan eta Iker Martinez eta Zaldi Herrenak taldearen kontzertua gaztelekuan, Ganbararen *Maxk gose da!* ikuskizuna astelehenean, Potx eta Lotx pailazoen *Kaleak bizirik* emanaldia 28an Santa Anan, hilaren 30eko gospel kontzertua toki berean eta Errege bezperako bertso saioa Zubikoan. Musika bandaren Gabon kanten emanaldia ere mantentzen da, eta baita urtarilaren 6ko kontzertua ere.

Egoerari irtenbidea "urgentziaz" ematea eskatu du Udalak

COVID ziurtagiria-ri lotuta Eusko Jaurlaritzak jarritako neurriak direla-eta, gutuna bidali dio Oñatiko Udalak Gotzone Sagardui Osasun sailburuari. Udalaren esanetan, lehendakariak sinaturiko dekretu bidez abiaraziko neurri berriak berriro jartzen du udalen gain Eusko Jaurlaritzak agindutako neurriak bete araztea, "inolako baliabide edota laguntzarik" eskaini barik. "Kezkatuta gaude osasun egoerarekin, eta, kezkatuta, hartutako neurriekin; izan ere, pandemiari ezin dakioke soilik neurri murriztaileekin aurre egin". Osakidetza lehen arreta "gainezka" dagoela ere esan dio, eta horrek "eragin zuzena" duela herritarrei eskaintakotako arretan. Egoerari irtenbidea "urgentziaz" emateko beharra azpimarratu dio Udalak eta eskatu herritarrek test azkarrak astean behin dohainik egiteko aukera eskaintzea, laborategiko zerbitzuak indartzea eta aztarnari gehiago jartzea.

AUTLAN[®]
EMD

**Gabon jai
Zoriontsuak**
ETA DESIORIK ONENAK 2022
URTE BERRIRAKO

Okm:

batzen gaituen
distantzia

Egin zaitez goienakide!

goiena[“]
kide



www.goiena.eus/kideak





Oñatiko aurrelari Etxegarai, pilota astintzeko unean, Osés bikotekidearen eta Bergara eta Barrocal kontrarioen begiradapean. X.U.

Oñatikoak, andre eta jabe etxean

PILOTA Gipuzkoako txapelketako txapelak oñatiarren buru gainean geratu dira. Maddi Etxegaraik eta Uxue Osések 22-9 irabazi zieten Bergarako Arrate Bergarari eta Maddi Barrocali; azken horrek eskuetako minez jokatu zuen, eta finala baldintzatu zuen

Xabier Urzelai OÑATI

Egubakoitzean, zale oñatiarrak etxeko pilotariak bertatik bertara ikusteko gogoz bertaratu ziren Zubikoako frontoira. Bergarakoak ere baziren, baina kopuruz gutxiago, normala den moduan. Hala, Maddalen Etxegaraik eta Uxue Osések presio hori zuten bizkar gainean, motibagarria bezain zaila izaten da-eta gertukoaren aurrean jokatzea. Bikote horrek, baina, dagoeneko plaza handietan egin du *dantzan* –Emakume Master Cupeko finalean, esaterako–, eta, gazteak izanda ere, erakutsi dute ez direla kikiltzen diren horietakoak.

Aurrean, berriz, Bergarako bikote sendoa, Arrate Bergara eta Maddi Barrocal. Finalaren aurretik lau pilotari horiek, txapelketa berean, elkarren kontra jokatuta zeuden, eta orduan,

partiduan mahoneroak izan ziren nagusi. Hala, Osések eta Etxegaraik helburu garbia zeukaten: Barrocalek aurreko koadroetan duen arriskua saihesteko atzean jokatzea; alegia, Bergara nekaraztea.

Hasieratik aurretik

Bergararrei kosta egin zitzaion partiduan sartzea. Konturatu zirenerako, Oñatikoak 4-0 ziren aurretik; Etxegarairen pilotakada txapara joan zenean egin zuten bergararrek 4-1eko. Ez zuten une hura partiduen jorra aldatzeko baliatu (6-1). Bistan

OÑATIKO BIKOTEA HASIERATIK AURRERATU ZEN MARKAGAILUAN, ETA HOBETO IBILI ZEN

zen Barrocal eta Bergara ez zeudela eroso; kontrara, Osés eta Etxegarai oso ondo ari ziren. Osés seguru atzean eta Etxegarai aurreko koadroetan pilotari abiadura ematen. Horrez gain, bergararrak akats asko egiten zebiltzan. Aurrean Barrocal tantoak amaitu ezinean zebilen; atzean, aldiz, Bergara aurreikusi baino hobeto zebilen sakeen erretoan, baina hormara arri-matutako pilotetan zailtasunekin zebilen. 7-2koan atsedendia eskatu zuten eta Julen Aranburu saiatu zen kanpotik ikusten zuenarekin zuzenketak proposatzen. Zeregin bera zuen Josu Osak. Entzundakoak ondo hartu zituzten Barrocalek eta Bergarak, 11-8ra gerturatu ziren, baita 12-9ra ere. Baina orduan amaitu zitzaion bolada ona; handik aurrera, Osések eta Etxegaraik euren legea ezarri zuten (22-9).



Ezkerretik hasita, Maddalen Etxegarai eta Uxue Osés txapelekin. X.U.

"Ez da final batere erraza izan"

"Badirudi markagailuari begiratu gero partidu erraza izan dela, baina ez da hala izan. Tanto asko oso lehiatuak izan dira, pilotakada dezentekoak, eta, aurre hartu badugu ere, aldea txikitzea lortu dute", adierazi zuen Uxue Osések. Maddalen Etxegaraik adierazi zuen kantxara helburu garbiarekin egin zutela salto: "Ligaxkako partiduan galdu egin genuen euren kontra; bagenekien ez zela partidu erraza izango, eta helburu garbia geneukan, seguru jokatzea. Izan ere, euren kontra galdu genuenean akats asko egin genituen". Finala etxean jokatu izanaren gainean ere egin zuen berba Osések: "Egia da ligaxkako partiduetan ez gurela askorik gozatu; etxekoaren aurrean jokatzea ez da samurra, baina finalean gozatu egin dugu. Eskerrak eman nahi dizkiegu bertaratu direnei".



Maddi Barrocal eta Arrate Bergara, Aranbururen esanak entzuten. X.U.

"Finalean jokatu dugu okerrren"

Partidu amaieran burumakur zegoen bikote bergararra: "Penaz geratu gara, txapelketako partidurik txarrena izan delako finalekoa. Bereziki ni ez naiz batere ondo ibili; eskuko minez etorri naiz eta ez dut batere gozatu", zioen Maddi Barrocalek. Bergarakoari azken hilabeteotan pilatu egin zaizkio lanak, besteak beste, Gipuzkoako txapelketa, Bergara Hiria eta Emakume Master Cup jokatu ditu eta: "Orain, atsedendia hartzea tokatzen da, eta eskua errekuuperatzea; horretarako baliatuko ditut Gabonak".

Arrate Bergara ere minduta zegoen, baina apur bat lasaiago: "Ez dugu ondo jokatu, hori da egia. Eta pena da; izan ere, uste dut txapelketa osoan zehar lan txukuna egin dugula. Gaur, gu baino gehiago izan dira, eta, hortaz, zorionak oñatiarrei, merezitako txapela jantzi dute".

Azken ordukoak zain daude San Silvestre probak

ATLETISMOA Bergarako San Silvestre Traileko antolatzaileek aspaldi erabaki zuten aurtengo edizioa ez egitea, eta Arrasaten Musakolakoa ere ez dute egingo. Gainontzeko herriek, berez, aurrera egingo dute urteko azken lasterketarekin

Xabier Urzelai ARRASATE

San Silvestre lasterketak antolatuko dituzte abenduaren 31rako Oñatin, Eskoriatzan eta Aretxabaletan, baldin eta egunotan Jaurilaritzak bestelako murrizketarik onartzen ez badu. Oñatikoa da jende gehien batzen duen hitzordua –Debagoienean–, eta Asier Osinagak GOIENari adierazi dio eurek dena daukela gertu: "Egia da izen-ematea egunean bertan egiten dugunez azken orduan proba horiek bertan behera uzten badituzte guri, behintzat, ez digutela aparteko kalterik eragingo. Bai aurreratu dugu diru bat sarietarako, moztararako eta abar, baina beste lasterketa batzuetako antolatzaileekin izan naiz egunotan, eta horiendako bai, kalteak handiagoak lirateke. Esaterako, Azkoitiko lasterketako antolatzaileekin izan naiz eta horiek dagoeneko 8.000 euro aurreratu dituzte lasterketa antolatu ahal izateko. Halako erabakiak, hartzekotan, aurreikuspen handia goz hartu behar dira, eta ez azken orduan".

"Kontsekuente bagina..."

Osinagaren ustez, ulergarria litzateke, azken asteotan egoera zelan okertu den ikusita, lasterketa bertan behera uztea: "Kon-
tziante gara edozein momentu-



Lasterkari bat Oñatiko helmuga gurutzatzen, artxiboko irudi batean. GOIENA

ARETXABALETAN, ESKORIATZAN ETA OÑATIN PROBAK EGITEKO ASMOZ DABILTZA

tan utz ditzaketela lasterketa guztiak bertan behera, baina betikoa da, San Silvestre proba bertan behera utzi eta ondoren denok poteora joaten bagara, edo gauean parrandan... Guk

egin duguna da, batetik, umeen lasterketa bertan behera utzi. Eskola-kirola ere bertan behera utzi duten honetan, iruditzen zaigu erabaki zentzuzkoena dela, eta, horrekin batera, protokolo berezia prestatu dugu lasterketa egunerako. Oraingoz, bailarako lasterketek aurrera egin behar dute, eta horiekin batera Beasaingoak, Lazkaoak... Antolatu egin behar dituzte. Azken ordurorik ez badago, guk ere gurea segurtasun neurriekin baina antolatu egingo dugu".

FUTBOLA Gabonetako Emakumezkoen Torneo, 29an hasita

Arizmendik antolatuta, abenduaren 29an eta 30ean egingo dute Emakumezkoen Gabonetako Futbol Txapelketa, Ibarra. Hilaren 30ean, nagusien hiruko torneoan Real, Atletico Lince eta Debagoieneko selekzioa lehiatuko dira –goizez–. Hilaren 29an, berriz, kategoria txikietan Gipuzkoako talde mordo batuko dira.



Real, artxiboko argazki batean. GOIENA

FUTBOLA Mondra eta Bergara aurrez aurre urteko azken egunean

Joan den astean, Ohorezko Erregional Mailan bertan behera utzi zituzten norgehiagoka asko, eta tartean zegoen Mondrak eta Bergarak jokatu beharreko derbia. Hala, abenduaren 31n (12:00) jokatu dute atzeratutako partidua hori, Mojategin. Bestalde, Aloña Mendik eta UDak urtarilaren 2an jokatu dute atzeratutako jardunaldia.

FUTBOLA Bixente Etxeandiarren oroimenezkoa, gertu

UDak gertu dauka abenduaren 26an, 27an eta 28an Ibarra jokatu duten Bixente Etxeandiarren oroimenezko torneo. Gainera, aurtengo edizioa berezia izango da, Aretxabaletako kirol klubaren 75. urteurrena ospatzen dabiltzalako. Debagoieneko taldeekin batera Elorrio, Lazkao eta Eibar gonbidatu dituzte txapelketara.

FUTBOLA Txelis torneo abenduaren 30ean egingo du Mondrak

Kategoria txikiei zuzendutako Txelisen oroimenezkoa abenduaren 30ean antolatuko du Mondrak, eta, urtero moduan, Gipuzkoako talde mordo batuko dira bertan. Jose Luis Ibarquen Txelis Mondrako jokalaria, kategoria txikietako entrenatzaile eta zuzendaritzako kide ere izan zen. Torneo goizez jokatu dute.

FUTBOLA Helburu solidarioa izango du Bergarako torneoak

Gabonetako gazte mailako txapelketako nobedadea da mutilen ohiko txapelketaz gain emakumeena ere izango dela. Gainera, biek balioko dute haurtzaroko muskulu-atrofia espinal deritzon gaitzarekin lotutako Fundazioari laguntzeko. Txapelketa urtarilaren 5ean jokatu dute; sarrera 5 euro da. Informazio gehiagorako, ikus 21. orria.

Domekan, San Esteban krosa

Domekan egingo dute, hilak 26, San Esteban krosa, Antzuolan. 11:30ean hasita, gaztetxoendako lasterketak egingo dituzte –distantzia egokian–, eta 12:00etan hasiko dute kadete mailako, gazteen eta helduen lasterketa.

Hala, Udalak jakinarazi du ibilbideko bidegurutzeetan egoteko boluntarioen beharra egongo dela.



Gaztetxoak San Esteban krosean esku hartzen, artxiboko irudi batean. GOIENA

PILOTA Reyes Azkoitia txapelketako finalak, hilaren 30ean

